Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

5e46ad9d433669e4713f96fb894a10e01a49879d26bcb483d44e0be175aaed62

Lotura honetan dago: https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak

# TOLOSAKO UDALBATZAK 2020KO AZAROAREN 26AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

## 2020.11.26

Tolosako Udaletxean, 2020ko azaroaren hogeita seian, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

**Alkate-lehendakaria:**
Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

**Parte hartu duten zinegotziak:**
Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)
Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV)
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EHBILDU)
Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU)
Aitana Amondarain Esquisabel (EHBILDU)
Olatz Artola Apezteguia (EHBILDU)
Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU)
Garbiñe Marzol Ormazabal (EHBILDU)
Xabier Martinez Quinquilla (EHBILDU)
Jose Mª Villanueva Telleria (PSE-EE)

**Parte hartu ez duen zinegotzia**:
Aitzol Garcia Azurmendi (EHBILDU)
**Idazkaria:**
Begoña Garmendia Vazquez

**Jarduneko kontuhartzailea:**
Paulino Alonso Eraso

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

## Eguneko gai-zerrenda

1. Ondorengo akta onartzea:
   2020ko urriaren 29ko Ohiko Osoko Bilkurakoa (Akta elektronikoa).

2. Onartzea Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako Udalaren arteko lankidetza hitzarmena, Tokiko Poliziaren Oinarrizko Eskalako agenteen bosgarren deialdi bateratuan sartzeko.

3. Hasierako onarpena: 14/2020 Kreditu aldaketarako espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.

4. Onartzea 2020-2022 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa.

5. Onartzea Erretengibel SAUren aktibo eta pasiboen lagapena Tolosako Udalaren alde.

6. Onartzea Euskal Herria plazako hotela eta jatetxe-kafetegia ustiatzeko obra eta zerbitzu emakidaren kontratuaren oreka ekonomiko-finantzarioa berrezartzeko proposamena, COVID-19aren pandemiak sortutako egoeraren ondorioz Bidebide Tolosa SL (B-75168336) enpresak egindako eskaera dela eta.

7. Onartzea Abenduko Ohiko osoko bilkuraren eguna.

8. Kreditu aldaketa hauen berri eman:
   - 2020/1748 Alkatetza Dekretua, 12/2020 kreditu aldaketarako espedienteari dagokiona.
   - 2020/1873 Alkatetza Dekretua, 13/2020 kreditu aldaketarako espedienteari dagokiona.

9. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:
   2020ko urriaren 1etik 30era (2020/1542.-2020/1750).

10. Mozioa: Azaroaren 25a, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna

11. Euskararen Nazioarteko Eguna.

12. Tolosako PSE-EEek aurkezten duen mozioa Mendebalde Saharan bizi duten egoerari buruzkoa.

13. Galderak eta eskaerak.

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

Idazkariak adierazi du Osoko Bilkura era telematikoan egingo dela, zoom bidez, COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu duen egoeraren aurrean, 11/2020 Errege Lege Dekretuak, bere Bigarren Azken Xedapenean, 7/85 Legearen 46. artikulua aldatu eta erantsitako 3. atalean oinarrituz: *«3. En todo caso, cuando concurran situaciones excepcionales de fuerza mayor, de grave riesgo colectivo, o catástrofes públicas que impidan o dificulten de manera desproporcionada el normal funcionamiento del régimen presencial de las sesiones de los órganos colegiados de las Entidades Locales, estos podrán, apreciada la concurrencia de la situación descrita por el Alcalde o Presidente o quien válidamente les sustituya al efecto de la convocatoria de acuerdo con la normativa vigente, constituirse, celebrar sesiones y adoptar acuerdos a distancia por medios electrónicos y telemáticos, siempre que sus miembros participantes se encuentren en territorio español y quede acreditada su identidad. Asimismo, se deberá asegurar la comunicación entre ellos en tiempo real durante la sesión, disponiéndose los medios necesarios para garantizar el carácter público o secreto de las mismas según proceda legalmente en cada caso.*
*A los efectos anteriores, se consideran medios electrónicos válidos las audioconferencias, videoconferencias, u otros sistemas tecnológicos o audiovisuales que garanticen adecuadamente la seguridad tecnológica, la efectiva participación política de sus miembros, la validez del debate y votación de los acuerdos que se adopten.».*

Beraz, aipaturiko xedapenean araututakoaren arabera, udal idazkariak honako eginbide hauek egin ditu:

Lehenik.- Batzarkide guztien identitatea egiaztatu du.

Bigarrena.- Fisikoki ez dagoen batzarkide bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena egin du, Estatuko lurraldean dagoela ziurtatzeko.

Hirugarrena.- Irizpenen bozketa banan-banan egingo da, eta batzarkide bakoitzak bere botoa azalduko du.

Eta bukatzeko, batzarkideek, aho batez, berretsi dute Osoko Bilkura era erdi presentzialean egitea.

Ondoren, batzarkideak bilkurako gai-zerrenda aztertzen hasi dira.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. **ONDORENGO AKTA ONARTZEA:**
   **2020KO URRIAREN 29KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA (AKTA ELEKTRONIKOA).**

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

## BATZORDE INFORMATIBOEN IRIZPENAK

**2. ONARTZEA POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAREN ETA TOLOSAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, TOKIKO POLIZIAREN OINARRIZKO ESKALAKO AGENTEEN BOSGARREN DEIALDI BATERATUAN SARTZEKO.**

**Antolakuntza Batzordearen 2020ko azaroaren 18ko irizpena.**

### AURREKARIAK

**I.-** Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia eta Tolosako Udala jakitun dira toki mailan tokiko poliziaren oinarrizko eskalako agente plazak bitarteko izaeraz hornituta daudela hainbat kasutan, eta horiek hornitzea beharrezkoa izaten dela zerbitzua modu egoki batean eman ahal izateko.

Horretarako, eta plantilla egonkortzeko asmoz, bai Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak, bai Tolosako Udalak, elkarlanean bultzatu beharko dute Udaltzaingoko Oinarrizko Eskalako deialdi bateratuan hutsik dauden hainbat plaza betetzea.

**II.-** Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistemak Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen arteko lankidetza- eta koordinazio-mekanismo bateratuak behar ditu, hain zuzen, azken horien ekintza-baliabideak optimizatzeko.

**III.-** Tolosako Udalak 2020. urtean hautaketa prozesua hasi nahi du lanpostuen zerrendan hutsik dagoen Udaltzaingoko agente plaza bat hornitzeko. Horretarako, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak tokiko agenteak hautatzeko, deialdia egiteko eta horiek prestatzeko baliabide tekniko eta azpiegitura nahikoak dituenez, Tolosako Udalak egokia deritzo aipatu erakundearekin lankidetzan aritzeko hitzarmena sinatzeari tokiko poliziako oinarrizko eskalako behin betiko izaeraz agente plazak hautatzeko.

Hori guztia aintzat hartuta, Udaleko Udaltzaingoak eta Giza Baliabideetako Sailak proposatu dute lankidetza hitzarmena sinatzea Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako Udalaren artean, Tokiko Poliziaren oinarrizko eskalako agenteentzako deialdi bateratuan sartzeko.

### ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

**AZTERKETA JURIDIKOA**

**1.- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren izaera eta xedea**

Lankidetza hitzarmena izenpetzea proposatu den erakundearen – **Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia** – izaerari dagokionez, Euskadiko Segurtasun

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 20. artikuluak xedatzen du **Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia Administrazio-izaerako organismo autonomoa dela eta bere helburuak betetzeko berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa dituela,** eta 21. artikuluak xedatzen du **segurtasun publikoaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikia dagoela.**

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren helburua da baldintzak eta bitartekoak sortzea beharrezkoa duten lanbide-heziketa eskura dezaten herritarren segurtasuna lortzeko zerbitzu publikoak ematen jarduten duten edo parte hartzen duten pertsonek, eta gaikuntza hori beste pertsona batzuei ere eskaintzea, baldin eta, segurtasun publikoko zerbitzuetakoak izan ez arren, interes profesionala badute edo haien jarduerak zerbitzu horien garapenean eragiten badu.

Bestalde, 15/2012 Legearen 20. artikuluko 3. atalak xedatzen du, *“**Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren xedea da Gobernuak segurtasun publikoaren arlorako duen prestakuntza-, hautaketa-, ikerketa- eta berrikuntza-politika gauzatzea, hala Euskal Herriko Poliziari dagozkion arloetan nola babes zibilari eta larrialdi-zerbitzuei dagozkienetan. Horretarako, Euskadiko erakunde erkideei dagozkien eskumenen eremuaren barruan eta lege honetan ezarritakoarekin bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko segurtasun publikoko politika gauzatzen jarduten edo esku hartzen duten giza baliabideen prestakuntza eta, hala dagokionean, hautaketa planifikatu eta kudeatu beharko ditu“.***

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eginkizunen artean daude, besteak beste (15/2012 Legearen 23. artikuluan):

*b) Toki-administrazioaren mendeko polizia-kidegoetako eskala eta kategorietan sartzeko oinarrizko arauak egitea. Arauok Ertzaintzan beste horien baliokide diren eskala eta kategorietarako ezarritakoen antzeko irizpideei egokituko zaizkie. Orobat, eta batez ere, guztientzako berdinak eta nahitaez aplikatzekoak diren hautaketa-prozesuetako programa, eduki eta egiturak egitea.*

*c) Euskal Herriko Polizia osatzen duten kidegoetako eskaletan eta kategorietan sartzeko aldez aurreko prestakuntza-ikastaroak eta praktikaldiak programatu, antolatu eta garatzea, eta Euskal Herriko Poliziako kideen etengabeko prestakuntza eta espezializaziorako prestakuntza antolatu eta garatzea. Horretarako, akademiak, dagozkien administrazioekin batera, kidego horien prestakuntzabeharrizanak ebaluatuko ditu aldiro-aldiro. Akademiak toki-erakundeen prestakuntza-zentroei eskuordetu ahal izango dizkiete, hala eskatzen badute, beren menpeko polizia-kidegoetako eskala eta kategorietan sartu aurreko prestakuntza-ikastaroen eta praktikaldien antolaketa eta garapena.*

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

*Hizkuntza-trebakuntzarako ikastaroak programatu, antolatu eta garatzea Ertzaintzako kideak euskalduntzea lortzeko.*

*d) Udalerrien mendeko karrerako funtzionarioen prestakuntza-planetarako oinarrizko irizpideak prestatzea, haien garapena koordinatzea eta gauzatzen laguntzea.*

*e) Udal-jagole edo mugikortasun-agente sartzeko oinarrizko arauak egitea, eta horien prestakuntza-ikastaroak programatu, antolatu eta garatzea. Akademiak hala eskatzen duten tokierakundeen prestakuntza-zentroen gain utzi ahal izango du langile horien prestakuntza-ikastaroen antolaketa eta garapena.*

***f) Dagokion udalerriak akademiaren esku uzten duenean, toki-administrazioaren mendeko polizia-kidegoen eskala eta kategorietan sartzeko hautaketa-prozesuak gauzatzea. Era berean, udalerriekin elkarlanean aritu ahal izango da, eta laguntza teknikoa ere eskaini ahal izango die, polizia-kidegoetako funtzionarioen hautaketari dagozkion gaietan. Halaber, udalerriek hautaketa prozesuetarako deialdiak egiten dituztenean, eginkizunak egokiro betetzeko behar dituzten lankidetza-materiala eta laguntza teknikoa eskuratu ahal izango dizkie epaimahaiei.***

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin izenpetzea proposatu den lankidetza hitzarmenaren xedea – tokiko poliziaren oinarrizko eskalako bitarteko agenteentzako lan-poltsa eratzea – beraz, erakunde autonomo horren xede eta eginkizunen artean sartzen da.

Ildo horretatik, 1/2020 LEGEGINTZAKO DEKRETUAk, uztailaren 22koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 69.3 artikuluan honako hau xedatzen du:

“3.– Toki-erakundeek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren gomendio utzi ahal izango dute, akademiak aldez aurretik onartzen badu, Udaltzaingoko kidego eta zerbitzuetan sartzeko hautaketa-prozedurak batera egitea, bai eta, hala badagokio, mugikortasun-agente izateko hautaketa-prozedurak ere. Gomendio hori dela eta, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak berak egingo ditu hautaketa-prozedura horiek“.

**2.- Lankidetza hitzarmenaren jardunbidea eta izapidetzea**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 55. artikuluak, Estatu eta Autonomia Erkidegoetako administrazioen eta Toki Entitateetako administrazioen arteko koordinazioa, eraginkortasuna eta elkarrekiko lankidetza arautzen ditu, dituzten xedeak ahalik eta era onenean bete ditzaten.

Aipatu Legearen 57. artikuluak, besteak beste, toki administrazioaren eta gainontzeko administrazioen arteko lankidetza ekonomikoa, teknikoa eta administratiboa arautzen

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

ditu, udal eskumeneko zerbitzuak emateko garaian. Lankidetza hori dagokion administrazio-hitzarmenaren edo partzuergoaren bitartez gauzatuko da.

Bestalde, lankidetza hitzarmenaren xedeari erreparatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzen duen ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 3. artikuluaren 3. atalak xedatzen du euskal herri-administrazioek eta haien ardurapeko zerbitzuek lankidetzaren, koordinazioaren eta elkarlanaren printzipioen arabera izango dituztela harremanak elkarrekin, eta 44. artikuluaren 1. atalak, berriz, segurtasun publikoaren eskumena duen sailak polizia-lankidetzarako hitzarmenak sinatzeko aukera daukala, horretarako interesa duten udalekin, lankidetzarako eta elkarlanerako modu eta prozedurak zehazteko.

Finean, formulazio horiek 1978ko abenduaren 27ko Konstituzioaren 103.1 artikuluaren aplikazio zehatzak dira: *La Administración Pública sirve con objetividad los intereses generales y actúa de acuerdo con los principios de eficacia, jerarquía, descentralización, desconcentración y coordinación con sometimiento pleno a la ley y al Derecho.*

Halaber, 2016ko urriaren 2an indarrean sartu zen Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko tituluaren VI. Kapituluak Lankidetza hitzarmenak arautzen ditu, definizio honekin: "***1. Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera.***

*Ez dira hitzarmentzat hartzen jarduketako protokolo orokorrak edo antzeko tresnak, baldin eta eduki orokorreko asmoen deklarazio hutsak badakartzate edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatea azaltzen badute, betiere haien ondorioz ez bada konpromiso juridiko zehatz eta eskatzeko modukorik formalizatzen.*

***Hitzarmenek ezingo dute xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak. Xede hori hartuz gero, haien izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusita dagoenari lotu beharko zaizkio".***

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako Udalaren artean izenpetzea proposaturiko lankidetza hitzarmena, 40/2015 Legearen 47.2 artikuluko a) atalean xedaturiko hitzarmen mota izango litzateke, ( *a) Administrazio publiko biren edo gehiagoren artean sinatutako administrazio arteko hitzarmenak, edo administrazio publiko diferenteei lotutako edo haien mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate biren edo gehiagoren artean sinatutakoak.*

*Hitzarmen horien barnean bildu ahalko da beste administrazio publiko baten edo lotutako edo mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate baten bitarteko, zerbitzu eta baliabideak erabiltzea, eskumen propioak edo delegatuak baliatzeko).*

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

Hitzarmenaren baliozkotasun eta eraginkortasunari dagokionez, 40/2015 Legearen 48. artikuluak bete beharreko baldintzak xedatzen ditu, horien artean, kasurako aipatzekoak:

- Hitzarmenak izenpetzeak kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu, zerbitzu publikoen eta baliabideen baterako erabilera erraztu, onura publikoko jarduerak burutzeko laguntza eman eta aurrekontuaren egonkortasun eta finantza jasangarritasunaren inguruko legedia bete beharko ditu (48.3 artikulua)

- Hitzarmenak aldeen adostasuna azalduz perfekzionatzen direla (48.8 artikulua)

Hitzarmenek zehaztu beharreko gutxieneko materiak 40/2015 Legearen 49. artikuluak xedatzen ditu, honela:

*a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuak, eta alderdietako bakoitzak zer gaitasun juridikorekin jarduten duen.*

*b) Zer eskumenetan oinarritzen den administrazio publikoaren, hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoen eta zuzenbide publikoko entitateen edo unibertsitate publikoen jarduketa.*

*c) Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak hura betetzeko egin beharreko jarduketak, lortutako emaitzen titulartasuna azalduta, hala badagokio.*

*d) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromiso ekonomikoak, halakorik badago; haien urtekako denbora-banaketa adierazi beharko da, bai eta dagokion aurrekontuari zehazki egotziko zaiona ere, aurrekontu-legeriak xedatu duenaren arabera.*

*e) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromisoen ez betetzeari aplikatu beharreko ondorioak, eta, hala badagokio, ez betetzetik ondoriozta daitekeen kalte-ordaina zehazteko irizpideak.*

*f) Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak, hitzarmenaren betearazpenari eta sinatzaileek beren gain hartutako konpromisoei aplikatzekoak. Mekanismo horrek ebatziko ditu hitzarmenak direla eta plantea daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak.*

*g) Hitzarmena aldatzeko araubidea. Arau espresurik ez badago, sinatzaileen ahobatezko erabakia beharko da hitzarmenaren edukia aldatzeko.*

*h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregela hauek kontuan hartuta:*

*1.a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.*

*2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.*

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

Bestalde, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 86. artikuluan xedatutakoaren arabera, herri administrazioek ahalmena izango dute pertsona fisiko edo juridiko, publiko zein pribatuekin hitzarmenak, kontratuak edo bestelako itunak formalizatzeko, honako baldintza hauek kontuan hartuta: indarrean dagoen araubide juridikoaren aurkakoak ez izatea, dagokion gaiaren gain transakzio-debekurik ez izatea, eta dagokion akordioa interes publikoan oinarriturik egotea.

Beraz, Tokiko Poliziaren Oinarrizko eskalako agenteen bosgarren deialdi bateratuan sartzeko, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako Udalaren artean izenpetzea proposaturiko lankidetza hitzarmena egingo bat etorrita araudi honekin: toki araubidearen arloan indarrean dauden aipatu lege-xedapenak; Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzen duen ekainaren 28ko 15/2012 Legea; Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko tituluaren VI. Kapitulua, Lankidetza hitzarmenak arautzen dituena.

Jardunbideari dagokionez, lankidetza hitzarmenaren testua argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Udaleko gardentasun atarian, bat etorrita Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 artikuluaren b) atalean xedaturikoarekin.

**ESKUMENA.-** Lankidetza hitzarmen hau onartzeko eskumena Udalbatzaren Osoko Bilkurarena da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikuluak xedaturikoaren arabera.

Antolakuntza Batzorde Informatiboak irizpen proposamen hau aztertu eta bozkatu du 2020ko azaroaren 18an egindako bilkuran. Bozketa emaitza hau izan da:

**Aldeko botoak**: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitana Amondarain Eskisabel, Ander Figuerido Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria . Aho batez onartu dute.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**LEHENA.-** Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako Udalaren arteko lankidetza hitzarmena onartzea, tokiko poliziaren oinarrizko eskalako agenteen bosgarren deialdi bateratuan sartzeko, klausula hauen arabera:

## KLAUSULAK

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

*“**LEHENA.– Xedea eta helburua.** Hitzarmen honen xedea da tokiko poliziaren oinarrizko eskalako behin betiko agenteen bosgarren deialdi bateratuan sartzea, agenteen hautaketa prozesua egiteko.*
*Hitzarmen honen helburua, beraz, udal sinatzaileen eskaerei erantzutea da eta haiei zerbitzua eskaintzea, tokiko poliziaren oinarrizko eskalan hutsik dagoen agente plaza bat betetzeko, kalitatea eta eraginkortasuna bermatuz eta publizitate, berdintasun, meritu eta ahalmen printzipioekin bat.*

***BIGARRENA.- Deialdi bateratuaren hautaketa prozesuan parte hartzeko aplikazio-eremua eta pertsona hartzaileak.** Deialdi honetan Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin lankidetza-hitzarmena sinatu duten udalek bakarrik parte hartu ahalko dute, eta Tolosako Udalak bertan ezarritakoekin eta dituen agente lanpostuen ezaugarriekin oinarriak osatuko dira.*

*Hautaketa prozesu honen zati izango dira Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak deitutako hautaketa-prozesuan parte hartu duten eta hori gainditu duten eta Akademia horrek berak Arkauteko instalazioetan antolatutako prestakuntza-ikastaroa egingo duten pertsonak.*

***HIRUGARRENA.- Aldeen betebeharrak.** Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzari dagozkion sustapen-lanei eragin gabe, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak hautaketa-prozesu bat deituko du; onartutako eta kanpoan utzitako hautagaien zerrenda onartuko du; kalifikazio-epaimahaiko pertsona titularrak eta ordezkoak izendatuko ditu; probak antolatuko eta kudeatuko ditu; gainditu duten pertsonen zerrenda ezagutaraziko du eta hautagaien prestakuntza gauzatuko du.*

*Hautagaiek hasiera batetik deialdiak eskaintzen dituen aukerak ezagut ditzaten, Akademiak hautaketa-prozesuaren deialdia behar bezala iragarriko du, hitzartutako Udalen web guneetan ere argitaratuz.*

***LAUGARRENA.- Jarraipen Batzordea.** Hitzarmena behar bezala zaintzeko, segimendu-batzorde tekniko bat sortu da, lau kidez osatua: bi Segurtasun Publikoko Euskal Administrazioa ordezkatuz eta beste bi dagokion udala ordezkatuz. Lehendakaritza Segurtasun Publikoko Euskal Administrazioko ordezkarietako batek beteko du.*

*Batzorde horren zereginak hauexek dira: hitzarmena interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzea, betearaztean eragin daitezkeen desadostasunak konpontzea, hitzarmenaren urratsak aztertzea eta, beharrezkoa izanez gero, hori hobetzeko proposamenak egitea.*

*Batzordea urtean behin bilduko da, gutxienez, aldeetako batek horrela eskatzen badu, eta adostasunez hartu beharko dituzte erabakiak.*

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

***BOSGARRENA.- Hitzarmena aldatzea.*** *Lankidetza-hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean alda daiteke, bi aldeek hala erabakiz gero, eta erabaki berriak gehigarri gisa gehituko dizkiote dokumentu honi.*
***SEIGARRENA.- Hitzarmenaren araubidea eta auzigaiak.*** *Hitzarmen hau administrazio arlokoa da, eta, beraz, interpretatu eta garatzeko administrazio publikoen arteko lankidetza-hitzarmenei aplikatu beharreko administrazio-araubidea bete beharko da.*

*Laugarren klausulan jasota dagoen Jarraipen Batzordeari esleitutako funtzioei eragin gabe, hitzarmen hau garatzean eta egikaritzean bi aldeen artean sor litezkeen liskarrak administrazioarekiko auzi-jurisdikzioaren esku jarriko dira.*

***ZAZPIGARRENA.- Indarraldia eta amaiera.***
*Hitzarmen hau aldeek sinatzen dutenean sartuko da indarrean, eta indarraldia 2021eko abenduaren 31n bukatuko da. Nolanahi ere, isilbidez luzatuko da ondoz ondoko urteko aldietan, aldeetako batek salatu ezean. Salatzeko, idatzizko jakinarazpena egin behar zaio beste aldeari, hitzarmenaren edo luzapenen mugaeguna baino hilabete lehenago gutxienez.*

*Hitzarmena amaitu ahal izango da, aldeek edozer momentutan hala adosten badute.*

***ZORTZIGARRENA.- Erantsitako dokumentazioa****. Hitzarmen honekin batera, dokumentu hauek doaz, Tokiko poliziaren oinarrizko eskalako agenteen hautatzeko prozedura arautzen duten oinarrien zirriborroa.*

**BIGARRENA.-** Udal honetako alkate-lehendakariari ahalmena ematea, hitzarmen hau eta berau egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpetzeko.

**HIRUGARRENA.-** Hitzarmenaren testua argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Gardentasun atarian, bat etorrita Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 artikuluaren b) atalean xedaturikoarekin.

**LAUGARRENA.-** Erabaki horiek Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiari eta Tolosako Udaleko Ogasuna eta Finantza Administrazioko Sailari jakinaraztea.

**BOSGARRENA.- Arkauteko akademiak hitzarmenean aldaketaren bat proposatzen badu, Tokiko Gobernu Batzarrean delegatzea aldaketa horiek egiteko eskumena.**

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako Udalaren arteko lankidetza hitzarmena tokiko poliziaren oinarrizko eskalako agenteen bosgarren deialdi bateratuan sartzeko.

## 3. HASIERAKO ONARPENA: 14/2020 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

**Antolakuntza Batzordearen 2020ko azaroaren 18ko irizpena.**

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko, kreditu gehigarrien modalitateko 14/2020 espedientearen berri eman da.

Hau da proposamena:

| Gastuen partida | Azalpena | Kredituak | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Egungoak | Aldaketak | Behin betikoak |
| 1 0600.680.01.151.10 2020 | LURSAILAK. HIRIGINTZA | 50.000,00 | 682.000,00 | 732.000,00 |
| 1 0700.643.01.153.00 2020 | AZTERKETA ETA PROIEKTUAK. OBRATAKO ADMININISTRAZIOA | 172.040,00 | 47.000,00 | 219.040,00 |
| **GUZTIRA** | | 222.040,00 | 729.000,00 | 951.040,00 |

| Kodea | Partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| a | 2 870.01 2020 | ALTXORTEKIKO GERAKINA | 729.000,00 |
| **FINANTZAKETA GUZTIRA** | | | **729.000,00** |

Kontuhartzaileak egindako txostena aztertu dute. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki, 21/2003 Foru Arauak,

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Jose Mari Villanueva Telleria, Aitana Amondarain Eskisabal , Ander Figuerido eta Garbiñe Marzol Ormazabal. Aho batez onartu da.

Hau dela eta, batzordeak honek

**DIKTAMINATU DU**

**Lehenengoa.-** Hasierako onarpena ematea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 14/2020 espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatekoari, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, eta kapitulukako laburpen honen arabera:

**KREDITU GEHIGARRIAK**

| Kapituluak | Izena | Gehikuntzak |
|---|---|---|
| 6 | INBERTSIO ERREALAK | 729.000,00 |
| **KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA** | | **729.000,00** |

**FINANTZAKETA**

| Kapituluak | Izena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 8 | FINANTZA AKTIBOAK | 729.000,00 |
| **GUZTIRA** | | **729.000,00** |

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

**Bigarrena.-** Hasierako onarpenaren ondoren, espedientea jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du hasierako onarpena ematea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 14/2020 espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatekoari.

4. **ONARTZEA 2020-2022 TOLOSAKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA.**

**Antolakuntza Batzordearen 2020ko azaroaren 18ko irizpena.**

Gobernu batzarrak, 2020ko urriaren 27an, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituen:

Lehena.- Oinarri arautzaileak eta 2020ko deialdia onartzea, Tolosako merkataritza eta ostalaritza sektoreetan tokiko ekonomia indarberritzeko laguntzak emateko, ondoren, Udalbatzak berretsi ditzan.

Bigarrena.- Aipatutako dirulaguntza lerroa 2020-2022 epealdiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartzea.

2020ko urriaren 29an egindako Osoko Bilkuran, Udalbatzak Gobernu Batzarraren erabakia berretsi zuen.

Garapen Ekonomikoa, Turismoa, Merkataritza, Azokak eta Enpleguaren sustapenerako teknikariak proposamen hau egin du 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan lerro berri hori sartzeko:

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

<u>Dirulaguntza lerroa</u>: 6.7. Tokiko ekonomia indarberritzeko laguntzak (inbertsioetarako programa)

| | |
|---|---|
| Eskumen arloa | Merkataritza, Azoka eta Turismoa |
| Sektore hartzaileak | Merkataritza eta ostalaritzako autonomoak eta 30 langile baino gutxiago dituzten entitateak, euren izaera juridikoa edozein dela ere. |
| Helburuak | Deialdi honen xedea da Tolosako merkataritza eta ostalaritza sektoreetako jarduera ekonomikoa, enplegua eta lehiakortasuna mantentzea, tokiko jarduera sustatuz eta indarberrituz, bi sektore horiek COVID-19ak sortutako krisiaren inpaktuaren eraginei aurre egin diezaieten. Horretarako, hiru motatako jarduerak diruz lagunduko dira:<br>1) Txikizkako merkataritza eta ostalaritza sektoreetako jarduera ekonomikoa prestatzeko lokalak egokitzeko egindako inbertsioak, Covid-19 gaitzari eta segurtasun eta osasun irizpideei/protokoloei aurre egiteko direnak<br>2) Segurtasun eta osasun irizpideak/ protokoloak betetze aldera, lokalak egokitzeko ekipamendua.<br>3) Bezeroekin eta enpresa hornitzaileekin lan erlazio berriak egokitzearen ondoriozko inbertsioak. |
| Lortu nahi diren ondorioak | COVID-19aren eraginei aurre egin. |
| Egikaritze epea | Zehaztu gabe |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br>Finantziazioa funts propioekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Dirulaguntzarekin egiten da. |
| Ekintza Plana | Udalbatzak oinarriak onartuko ditu eta zinegotzi delegatuak deialdia.<br>Eskaerak forman aurkeztuz gero, zinegotzi delegatuaren dekretuaren bidez ebatziko da dirulaguntza. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | - Aurkeztutako saltoki kopurua.<br>- Diruzlagundutako saltoki kopurua.<br>- Banatutako dirulaguntza kopurua. |

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 1100.771.01.430.00 | Merkataritza eta ostalaritzako autonomoak eta 30 langile baino gutxiago dituzten entitateak | Merkataritza eta ostalaritza sustatu | 120.000€ | Lehiarik gabeko norgehiagoka prozedura | 120.000€ |

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

Dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzearen justifikazioa oinarritzen da 38/2003 Legearen 8. artikuluan eta Lege hori garatzen duen Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 10. artikuluan eta ondorengoetan.

Arautegiaren arabera, dirulaguntza bat ezarri aurretik dagokion lerroa dirulaguntzen plan estrategikoan sartu behar da.

Indar arautzailerik ez duenez, nahikoa izango da aldaketa hau indarrean sartzeko erabakia hartzea eta aldaketaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketak onartzeko eskumena duen organoa Osoko Bilkura da, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 6. artikuluan jasotzen duenaren arabera.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Jose Mari Villanueva Telleria, Aitana Amondarain Eskisabal , Ander Figuerido eta Garbiñe Marzol Ormazabal. Aho batez onartu da.

Hau dela eta, batzordeak hau

**DIKTAMINATU DU**

**Lehena.-** Sartzea 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan ondorengo dirulaguntza lerroa:

Dirulaguntza lerroa: 6.7. Tokiko ekonomia indarberritzeko laguntzak (inbertsioetarako programa)

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

| | |
|---|---|
| Eskumen arloa | Merkataritza, Azoka eta Turismoa |
| Sektore hartzaileak | Merkataritza eta ostalaritzako autonomoak eta 30 langile baino gutxiago dituzten entitateak, euren izaera juridikoa edozein dela ere. |
| Helburuak | Deialdi honen xedea da Tolosako merkataritza eta ostalaritza sektoreetako jarduera ekonomikoa, enplegua eta lehiakortasuna mantentzea, tokiko jarduera sustatuz eta indarberrituz, bi sektore horiek COVID-19ak sortutako krisiaren inpaktuaren eraginei aurre egin diezaieten. Horretarako, hiru motatako jarduerak diruz lagunduko dira:<br>1) Txikizkako merkataritza eta ostalaritza sektoreetako jarduera ekonomikoa prestatzeko lokalak egokitzeko egindako inbertsioak, Covid-19 gaitzari eta segurtasun eta osasun irizpideei/protokoloei aurre egiteko direnak<br>2) Segurtasun eta osasun irizpideak/ protokoloak betetze aldera, lokalak egokitzeko ekipamendua.<br>3) Bezeroekin eta enpresa hornitzaileekin lan erlazio berriak egokitzearen ondoriozko inbertsioak. |

| | |
|---|---|
| Lortu nahi diren ondorioak | COVID-19aren eraginei aurre egin. |
| Egikaritze epea | Zehaztu gabe |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br>Finantziazioa funts propioekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Dirulaguntzarekin egiten da. |
| Ekintza Plana | Udalbatzak oinarriak onartuko ditu eta zinegotzi delegatuak deialdia.<br>Eskaerak forman aurkeztuz gero, zinegotzi delegatuaren dekretuaren bidez ebatziko da dirulaguntza. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | - Aurkeztutako saltoki kopurua.<br>- Diruzlagundutako saltoki kopurua.<br>- Banatutako dirulaguntza kopurua. |

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 1100.771.01.430.00 | Merkataritza eta ostalaritzako autonomoak eta 30 langile baino gutxiago dituzten entitateak | Merkataritza eta ostalaritza sustatu | 120.000€ | Lehiarik gabeko norgehiagoka prozedura | 120.000€ |

**Bigarrena.-** Osoko Bilkuraren onarpenaren ondoren, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du 2020-2022 Tolosako udalaren dirulaguntzen plan estrategikoaren aldaketa.

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

5. **ONARTZEA ERRETENGIBEL SAUREN AKTIBO ETA PASIBOEN LAGAPENA TOLOSAKO UDALAREN ALDE.**

**Antolakuntza Batzordearen 2020ko azaroaren 18ko irizpena.**

**I. ERRETENGIBEL TOLOSAKO ALDE ZAHARRA BIRGAITZEKO HIRIGINTZAZKO SAUren ERAKETA, BILAKAERA ETA IZAERA**

Tolosako Udalak 1998ko maiatzaren 22an sortu zuen Erretengibel, Tolosako Alde zaharra birgaitzeko hirigintzazko S.A.U. (Erretengibel S.A.U.) pertsona bakarreko sozietate anonimoa, honako helburu honekin:

"*Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 30eko 214/96 Dekretuan jasotzen diren hiriaren birgaiketarako jarduerak garatzea izango da Sozietate honen helburua. Sozietatearen helburu izango da, berebat, aipatu dekretuan arautzen diren birgaiketa integratuko jarduerak zein bakarnako birgaiketak.*

*Birgaitze integratuari dagokionean, Tolosako Alde Zaharra izango da oraingoz Sozietatearen jarduera esparrua, harik eta "Birgaiketa Integratuko Eremu"aren behin betiko izendapenaz esparru hori zehaztasun handiagoz zehaztu arte. Alabaina, Sozietate honek beste eremu batzuetara ere zabaldu ahal izango ditu bere jarduerak, Batzorde Nagusiak egoki deritzanean.*

*Bakarnako birgaiketari dagokionean, Sozietatearen jarduera eremua Tolosako udal barruti osoan zehar hedatu ahal izango da.*

*Bere helburu soziala betetzeko, Sozietateak, besteak beste, ondoren zerrendatuko diren jarduerak burutu ahal izango ditu:*

a.- *Gizartea-hirigintzari buruzko azterlanak burutzea eta horiei buruzko segimendua egitea, erakundek burutua asmo dituen beste jarduera eremuei buruzkoak barne..*

b.- *Era guztietako egitasmoak, hirigintza proiektuak, banakidetasunekoak barne, hala nola, horien izapideak egitea, baldin eta indarrean dagoen hirigintza legeriarekin bat eginkizun horiek gauzatzeko ahalmenik badu.*

c.- *Era guztietako eraikuntza eta hirigintzarako Birgaiketa proiektuak idaztea.*

d.- *Birgaiketa jarduerei dagozkien obrak burutzea, hala nola, birgaiketako plan bereziak gauzatzera bideratzen den beste edozein obra, eta baita beste edozein proiektu, azterlan edo baliabide ere, baldin eta horiek Udalbatzak agindutakoak badira.*

e.- *Lurzorua sustatzea eta prestatzea, birgaiketako plan berezien zehaztapenak gauzatu ahal izateko.*

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

*f.- Desjabetzapen espedienteak idazten eta kudeatzen lankidetza ematean, betiere sozietatea ez denean desjabetzapenaren onuraduna.*

*g.- Eskura ditzakeen ondasun guztiak kudeatzea, ustiatzea eta artatzea. Beste horrenbeste egingo du Udalbatzak aginduko dizkion ondasun guztiekin, obrekin edota zerbitzuekin.*

*h.- Etxebizitzen eraikuntza sustatzea, sozietateak berak bakarrik edo beste administrazioekin lankidetzan.*

*i.- Helburu sozialaren betearazpenerako Sozietateak edo Administrazioak behar duen beste edozein txosten tekniko edo juridiko egitea.*

*Sozietateak oso-osorik edo, zeharbidez, partzialki garatu ahal izango ditu helburu soziala osatzen duten jarduerak. Helburu horrekin, berebat, helburu berarekin edo antzekoarekin eratutako Sozietateetan antolatutako akzio edo partaidetzaren bidez."*

Sozietate lagatzailearen partaidetza osoa Tolosako Udalarena da.

Tolosako Udalak du Tolosako udalerriko eraikuntza urbanizatzeko, kontserbatzeko eta birgaitzeko eskumena. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 85.2 artikuluaren arabera, Udalak Tolosako Alde Zaharreko hiri-birgaikuntzako jardueraren garapena kudeatzen du, zuzeneko kudeaketaren bidez, kapital osoa publikoa duen merkataritza-sozietate baten bidez. Horretarako, Udalak Erretengibel merkataritza-sozietatea eratu zuen, eta sozietate horren ardura da hiri-birgaikuntzako jarduerak egitea, birgaitze integratuko eta birgaitze isolatuko kasuak barne, zeinak araututa dauden abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan.

## II. ERRETENGIBEL TOLOSAKO ALDE ZAHARRA BIRGAITZEKO HIRIGINTZAZKO SAK KUDEATZEN DITUEN ZERBITZUAK

Erretengibel Udalak sortu zuen, batez ere Tolosako Alde Zaharreko hirigintza-lanak kudeatzeko tresna gisa. Sozietatea arduratzen da Eusko Jaurlaritzak etxebizitzak birgaitzeko ematen dituen laguntzak kudeatzeaz, bai eta bigarren eskuko etxebizitzak erosteko eta Bizigune programarako etxebizitzak erakartzeko dirulaguntzak kudeatzeaz ere. Titulartasun osoa Udalarena zuen merkataritza-forma aukeratu zen, hirigintzaren eta hiri-birgaitzearen arloko udal eskumenak kudeatzeko tresna arin bat izateko.

Eratu zenetik gaur arte, Tolosako Alde Zaharrean dauden hainbat higiezinen birgaitze integratua eta isolatua sustatu du sozietateak. Birgaitzeko erositako higiezinak eskualdatu egin dira kasu batzuetan, eta, beste kasu batzuetan, alokairu-erabilera laga zaie erakundeei (elkarteak) edo pertsona fisikoei, ohiko etxebizitza gisa erabil ditzaten.

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

Erretengibel S.A.U. ondorengo ondasun higiezinen jabea da:

| HELBIDEA | FINKA MOTA | IBI | OHARRAK | ERREGISTROKO DATUAK |
|---|---|---|---|---|
| LETXUGA 4-4 (Departamento 5) | ETXEBIZITZA | 0101143Q | Kudeaketa: Gizarte Zerbitzuak | RP Tolosa, tomo 828, libro 89, folio 1, finca 4274 |
| LETXUGA 4-3 (Departamento 4) | ETXEBIZITZA | 0101142Y | Kudeaketa: Gizarte Zerbitzuak | RP Tolosa, tomo 1756, libro 278, folio 91, finca 3677 |
| KALE NAGUSIA 17-4.EZK | ETXEBIZITZA | 5169494L | Alokairuan (Gizarte Zerbitzuen bidez) | RP Tolosa, tomo 2212, libro 348, folio 146, finca 18420 |
| KALE NAGUSIA 17-4.ESK | ETXEBIZITZA | 5161509T | Alokairuan (Gizarte Zerbitzuen bidez) | RP Tolosa, tomo 2212, libro 348, folio 146, finca 18419 |
| PLAZA BERRIA 1-1E | ETXEBIZITZA | 6110501X | Alokairuan | RP Tolosa, tomo 2183, libro 339, folio 21, finca 17958 |
| RONDILLA KALEA 31-1C | ETXEBIZITZA | 6136578H | Alokairuan | RP Tolosa, tomo 2297, libro 385, folio 216, finca 20367 |
| RONDILLA KALEA 31-1B | ETXEBIZITZA | 6136577W | Alokairuan | RP Tolosa, tomo 2297, libro 385, folio 212, finca 20366 |
| RONDILLA KALEA 31, BEHEA | LOKALA | 6136575G | Alokairuan | RP Tolosa, tomo 2297, libro 385, folio 204, finca 20364 |
| FELIPE GORRITI PLAZA 1 BEHEA | LOKALA | 0099558H | | RP Tolosa, tomo 1777, libro 282, folio 178, finca 13873 |
| AROZTEGIETA KALEA 4, BEHEA | LOKALA | 6136401F | | RP Tolosa, tomo 2279, libro 376, folio 15, finca 19850 |
| LETXUGA 3-3.EZKERRA (Departamento 8a) | ETXEBIZITZA | 5083963D | Alokairuan | RP Tolosa, tomo 1655, libro 254, folio 154, finca 12495 |
| ZERKAUSIA 4, BEHEA (Departamento 2) | LOKALA | 0098948X | | RP Tolosa, tomo 1786, libro 284, folio 190, finca 14037 |
| LETXUGA 6-4.EZKERRA | ETXEBIZITZA | 0101164D | | RP Tolosa, tomo 1235, libro 170, folio 72, finca 8872 |
| LETXUGA 4-2 (Departamento 3) | ETXEBIZITZA | 0101145J | Kudeaketa: Gizarte Zerbitzuak | RP Tolosa, tomo 1385, libro 194, folio 36, finca 2784 |
| ANDRE MARIA KALEA 7, BEHEA | LOKALA | | | RP Tolosa, tomo 2026, libro 318, folio 222, finca 16092 |
| ANDRE MARIA KALEA 20 – 1 | ETXEBIZITZA | | ORUBEA | RP Tolosa, tomo 1987, libro 313, folio 195, finca 15852 |
| NDRE MARIA KALEA 20, BEHEA | LOKALA | | ORUBEA | RP Tolosa, tomo 1987, libro 313, folio 193, finca 15851 |
| ANDRE MARIA KALEA 20 – 2 | ETXEBIZITZA | | ORUBEA | RP Tolosa, tomo 1427, libro 202, folio 86, finca 9948 |
| ANDRE MARIA KALEA 20 – 3 | ETXEBIZITZA | | ORUBEA | RP Tolosa, tomo 1427, libro 202, folio 89, finca 9949 |
| ANDRE MARIA KALEA 20 – BAJOCUB. | ETXEBIZITZA | | ORUBEA | RP Tolosa, tomo 2091, libro 329, folio 72, finca 16813 |
| ENPERADORE 39 – DESVAN DCHA. | ETXEBIZITZA | | ORUBEA | RP Tolosa, tomo 1383, libro 193, folio 21, finca 2636 |
| ENPERADORE 39 – 4º DERECHA | ETXEBIZITZA | | ORUBEA | RP Tolosa, tomo 1016, libro 128, folio 150, finca 7142 |
| ENPERADORE 39 – 4º IZQUIERDA | ETXEBIZITZA | | ORUBEA | RP Tolosa, tomo 1901, libro 303, folio 157, finca 15229 |
| ENPERADORE 39 – 3º DERECHA | ETXEBIZITZA | | ORUBEA | RP Tolosa, tomo 1786, libro 284, folio 215, finca 3044 |
| ENPERADORE 39 – DESVAN IZQU. | ETXEBIZITZA | | ORUBEA | RP Tolosa, tomo 1745, libro 274, folio 55, finca 13393 |
| ENPERADORE 39 – 3º IZQUIERDA | ETXEBIZITZA | | ORUBEA | RP Tolosa, tomo 1793, libro 285, folio 113, finca 14079 |

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

| HELBIDEA | FINKA MOTA | IBI | OHARRAK | ERREGISTROKO DATUAK |
|---|---|---|---|---|
| ENPERADORE 39 – 2º DERECHA | ETXEBIZITZA | | ORUBEA | RP Tolosa, tomo 2199, libro 345, folio 117, finca 2574 |
| ENPERADORE 39 – 1º IZQUIERDA | ETXEBIZITZA | | ORUBEA | RP Tolosa, tomo 1318, libro 184, folio 136, finca 9290 |
| ENPERADORE 39, BEHEA | LOKALA | | ORUBEA | RP Tolosa, tomo 2199, libro 345, folio 123, finca 18311 |
| ENPERADORE 41 (NAVE INDUSTRIAL) | LURSAILA | | ORUBEA | RP Tolosa, tomo 2091, libro 329, folio 137, finca 788 |
| ENPERADORE 43, BEHEA | LOKALA | | ORUBEA | RP Tolosa, tomo 1312, libro 183, folio 9, finca 9250 |
| ENPERADORE 43, 1º | VIVIENDA | | ORUBEA | RP Tolosa, tomo 1312, libro 183, folio 10, finca 9251 |
| ENPERADORE 43, 2º | VIVIENDA | | ORUBEA | RP Tolosa, tomo 1312, libro 183, folio 13, finca 9252 |
| ENPERADORE 43, 3º | VIVIENDA | | ORUBEA | RP Tolosa, tomo 1418, libro 201, folio 142, finca 9253 |
| ENPERADORE 45 – 1º DERECHA (gaur egun 39) | VIVIENDA | | ORUBEA | RP Tolosa, tomo 1969, libro 311, folio 127, finca 15712 |

## III. UDAL SEKTORE PUBLIKOA ARRAZIONALIZATZEKO BEHARRA: AKTIBO ETA PASIBOEN LAGAPEN OSOA

Gauzak horrela, 27/2013 Legeak, abenduaren 27koak, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoak, aurrekontu-egonkortasuna eta defizit-eza helburutzat hartuta, toki erakundeen sinplifikazioa bultzatu zuen. Horretarako, beste batzuen artean, tokiko sektore publikoa birdimentsionatzeko neurriak ezarri zituen. Neurri horien artean, 27/2013 Legeak toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarria aldatu zuen, eta epe bat ezarri zuen desegiteko "lege hau indarrean sartzen denean jarduera ekonomikoak garatzen dituzten erakundeak, Kontuen Europako Sistemaren ondorioetarako lege honen 3.1 artikuluko toki-erakundeetara edo haien erakunde autonomoetara atxikita daudenak eta finantza-desorekan daudenak".

Erretengibel S.A.Uren kontuek ez dute finantza-desoreka egoerarik erakusten (ustiapen kontuak emaitza positiboak eman ditu azkeneko bi urteetan). Hala ere, Erretengibel S.A.Uren desegitea Tolosako Udalak aurrera daraman menpeko erakundeen sinplifikazio prozesuaren barnean kokatzen da.

Egoera honen aurrean irtenbide bat bilatzearren, sozietatearen Administrazio Kontseiluak AGEM aholkularitza kontratatu zuen. Aholkularitza honek *Erretengibel Tolosako alde zaharra birgaitzeko hirigintzazko S.A.: Análisis jurídico y fiscal de la disolución ordenada de la sociedad pública"* izendaturiko azterketa egin zuen 2019ko azaroaren 14n, eta honako ondorio hauek adierazi:

•*De conformidad con la legislación vigente, desde el punto de vista mercantil, entre llevar a cabo una disolución y liquidación ordinaria de la sociedad en la que sería necesario*

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

*liquidar todos los activos y pasivos de la sociedad; o acudir a la única operación de reestructuración viable, cesión global de activos y pasivos de ERRETENGIBEL al Ayuntamiento de Tolosa, entendemos que el procedimiento más adecuado a las circunstancias actuales es la vía de la* ***cesión global de activos y pasivos****.*

Azterlanak sozietatearen aktibo eta pasiboen lagapen globalak Udalaren alde egin eta gero, lan- eta zerga-eremuetan eta hark hirugarrenekin dituen kontratuei dagokienez dituen ondorioak aztertu zituen. Erretengibel SAren Administrazio Kontseiluak 2020ko irailaren 29an egindako bilkuran onartu zuen egindako azterlana. Dokumentua espedientean dago.

Horretaz gain, Erretengibel SAren Administrazio Kontseiluak 2020ko irailaren 29an egindako bilkuran onartu zuten ***Sozietatearen aktibo eta pasibo osoa Tolosako Udalaren alde lagatzeko proiektua***. Azkenik, Sozietatearen Batzar Nagusiak onartu behar du lagatze-proiektu hori Tolosako Udalbatzaren Osoko Bilkuran aurkeztu aurretik.

Dokumentuak honako aurkibidea du:

- *AURREKARIAK.*
- *AKTIBOAREN ETA PASIBOAREN LAGAPEN GLOBALAREN JUSTIFIKAZIOA.*
- *AKTIBOAREN ETA PASIBOAREN LAGAPEN GLOBALAREN PROIEKTUA.*

1. *AKTIBOAREN ETA PASIBOAREN LAGAPEN GLOBALEAN PARTE HARTZEN DUTEN SOZIETATEAK.*
2. *AKTIBOAREN ETA PASIBOAREN LAGAPEN GLOBALAREN ERAGINKORTASUN DATA KONTABILITATE ONDORIOETARAKO.*
3. *ERAKUNDE LAGAPEN-HARTZAILEARI SOZIETATE LAGATZAILEAK TRANSMITITZEN DIZKION PASIBOAREN ETA AKTIBOAREN BALORAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA.*
4. *SOZIETATEAK EDO BAZKIDEEK JASO BEHARREKO KONTRAPRESTAZIOA.*
5. *AKTIBOAREN ETA PASIBOAREN LAGAPEN GLOBALAREN BALANTZEA ETA BALDINTZAK EZARTZEKO SOZIETATE LAGATZAILEAK ERABILITAKO KONTUEN DATA.*
6. *LAGAPEN GLOBALAREN ONDORIOAK ENPLEGUAN.*
7. *ZERGA ARAUBIDE APLIKAGARRIA.*

Hartutako ebazpenak honako hauek dira:

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

***Lehenengoa.-*** *Erretengibel Tolosako Alde Zaharra birgaitzeko hirigintzazko S.A.U. (sozietate lagatzailea) merkataritza-sozietatearen aktibo eta pasiboaren lagapen globala onartzea. Lagapen horren bidez, ondare osoa bere bazkide bakarrari eskualdatuko zaio, Tolosako Udala toki-erakundeari, oinordetza unibertsalaren bidez, eta sozietate lagatzailea iraungita geratuko da, eta ez dago kontraprestaziorik, ulertzen baita bazkide bakarrak jasotzen duela osorik eta zuzenean.*
*Hori guztia sozietate lagatzailearen Administrazio Organoak 2020ko irailaren 24an sinatutako aktiboaren eta pasiboaren lagapen globalaren proiektuan aurreikusitako termino eta baldintzetan. Proiektu hori Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan gordailutuko da, eta Bormean argitaratuko, 3/2009 Legearen 85.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.*
*Akta honi 1. dokumentu gisa erantsi zaio aktibo eta pasiboaren lagapen globalaren proiektuaren kopia.*

***Bigarrena.-*** *3/2009 Legearen 40.1 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, aipatutako Legearen 87. artikuluari jarraiki, eta Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 228. artikuluan xedatutakoa betez, adierazten da aktiboa eta pasiboa osorik lagatzeko erabakia aktiboa eta pasiboa osorik lagatzeko proiektuaren baldintza berberetan onartzen dela, haren edukira hertsiki egokituta, eta, zehazki, honako alderdi hauetara:*

*1) **LAGAPEN HONETAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEAK.***

*Aktiboaren eta pasiboaren lagapen globalaren proiektu honetan parte hartzen duten erakundeen datuak honako hauek dira:*

*- **Sozietate lagatzailea**:*

***ERRETENGIBEL TOLOSAKO ALDE ZAHARRA BIRGAITZEKO HIRIGINTZAZKO, SAU.*** *IFK:A- 20.632.360. Helbide soziala: Plaza Zaharra 10, behea, Tolosa (Gipuzkoa). Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago, 1.714. liburukian, 136. folioan, SS-14.674 orrian.*

*Sozietatea 1998ko maiatzaren 22an eratu zen Tolosan, Augusto Gómez-Martinho Cruz notarioaren aurrean, 820 protokolo-zenbakiarekin emandako eskrituraren bidez.*

*Kapital soziala 3.938.652,00.- € da, 54,00na euroko balio nominala duten 72.938 akziotan banatuta.*

*Sozietatearen helburua honako hau da:*
*......................*

*Sozietatea zazpi kidez osatutako administrazio-kontseilu batek zuzentzen eta administratzen du, Tolosako Udalak, entitatearen bazkide bakarrak, 2019ko uztailaren 19ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez.*

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

- ***Entitate lagapen-hartzailea:***

***TOLOSAKO UDALA.*** *IFK: P-20.076.00-F. Helbide soziala: Plaza Zaharra 6-A, Tolosa (Gipuzkoa).*

*Udala alkateak eta zinegotziek zuzentzen eta administratzen dute, eta guztiek osatzen dute Udalbatza, 17 zinegotzik osatua, eta hauteskunde-legeriaren eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean aurreikusitakoaren arabera izan ziren izendatuak.*

- ***AKTIBOAREN ETA PASIBOAREN LAGAPEN GLOBALAREN ERAGINKORTASUN DATA KONTABILITATE ONDORIOETARAKO.***

*Lagapen globalak kontabilitate-eraginkortasuna izango du sozietate lagatzailearen akziodun bakarrak eta lagapen-hartzaile den udalaren osoko bilkurak aktibo eta pasiboen lagapen globalaren proiektu honetan deskribatutako lagapen-eragiketa onartzen duten urteko urtarrilaren 1etik aurrera. Ondorio guztietarako, ulertuko da sozietate lagatzaileak egindako eragiketak lagapen globalaren lagapen-hartzaileak egin dituela data horretatik aurrera.*

- ***ERAKUNDE LAGAPEN-HARTZAILEARI SOZIETATE LAGATZAILEAK TRANSMITITZEN DIZKION PASIBOAREN ETA AKTIBOAREN BALORAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA.***

*Erretengibelen (sozietate lagatzailea) aktibo eta pasiboaren lagapen globalaren ondorioz, bere ondarea osatzen duten aktibo eta pasibo guztiak bere akziodun bakarrari eskualdatuko zaizkio, Tolosako Udalari (erakunde lagapen-hartzailea), eta, horren ondoren, sozietate lagatzailea desegin egingo da likidatu gabe.*

*Ondoren, sozietate lagatzaileak erakunde lagapen-hartzaileari transmitituko dizkion aktibo eta pasiboen balorazioari buruzko informazioa ematen da, 3/2009 Legearen 85.3ª artikuluan xedatutakoaren arabera.*

*Lagatzailearen balantzean, aktiboa BOST MILIOI HIRUREHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI MILA EHUN ETA HOGEITA HAMAZORTZI EURO ETA BOST zentimokoa da (5.349.138,05 €), honako xehetasun hauen arabera:*

***IBILGETU IMMATERIALA: 838,89 €***

- *Aplikazio informatikoak: 4.150,33 €*
- *Ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua: -3.311,44 €*

***IBILGETU MATERIALA: 175.298,65 €***

- *Eraikinak eta beste ibilgetu material bat: 262.910,29 €.*

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

• *Altzariak: 34.890,69 €.*

*Bulegoko ekipoak: 935,72 €.*

*Informazioa prozesatzeko ekipoak: 10.652,79 €.*

*Ondasun higiezinetako inbertsioen amortizazio metatua: -134.090,84 €.*

***ONDASUN HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK: 4.861.007,23 €***

• *Inbertsioak lursail eta ondasun naturaletan: 3.869.080,14 €.*

• *Inbertsioak etxebizitzetan: 871.999,74 €.*

• *Eraikinak eta bestelako eraikinak: 328.136,65 €.*

• *Ondasun higiezinetako inbertsioen amortizazio metatua: -208.209,30 €.*

***IZAKINAK: 214.316,28 €***

• *Lurrak eta ondasun naturalak: 133.889,60 €.*

• *Etxebizitzak: 11.224,16 €.*

• *Beste eraikin batzuk: 69.202,52 €.*

***ZORDUN KOMERTZIALAK ETA KOBRATZEKO BESTE KONTU BATZUK: 3.124,78 €***

• *Bezeroak salmentengatik eta zerbitzu-prestazioengatik: -17,70 €.*

• *Beste zordun batzuk: 110,63 €.*

• *Zergak itzultzeagatik zordun den erakunde publikoa: 2,16 €.*

• *Ogasun publiko zorduna sozietateen gaineko zergarengatik: 2.889,17 €.*

• *Ogasun publiko zorduna BEZagatik: 140,45 €.*

• *Langileentzako epe laburreko kredituak: 0,07 €.*

***EPE LABURREKO PERIODIFIKAZIOAK: 3.000,00 €***

• *Aurreratutako gastuak: 3.000,00 €.*

***ESKUDIRUA ETA BESTE AKTIBO LIKIDO BATZUK: 91.552,22 €***

• *Kutxabank: 91.150,81 €.*

• *Bankoa: 401,41 €.*

*Pasiboak, lagatzailearen balantzean, EHUN ETA HIRUROGEITA BOST MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HAMABOST EURO ETA BERROGEITA HAMAIKA ZENTIMOko (165.635,51 €) balioa du, honako xehetasun hauen arabera:*

***EPE LUZEKO ZORRAK: 34.815,74 €***

• *Epe luzeko mailegua Kutxabanken: 34.815,74 €.*

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

***<u>EPE LABURREKO ZORRAK: 123.379,83 €</u>***

- *Kutxabankekin: 3.533,21 €.*
- *Epe laburreko beste zor batzuk: 116.595,19 €.*
- *Epe laburrean jasotako fidantzak: 3.251,43 €.*

***<u>HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA ORDAINTZEKO BESTE KONTU BATZUK:7.439,94€</u>***

- *Hartzekodunak itxitako ekitaldiengatik: 2.135,56 €.*
- *Merkataritza-erregistratzaileak: 35,14 €.*
- *Tolosako Udala: 2.827,39 €.*
- *Ogasun publiko hartzekoduna: 601,92 €.*
- *Sozietateen gaineko Zergaren ogasun publiko hartzekoduna: 2.250,89 €.*
- *Gizarte Segurantzako erakunde hartzekoduna: -410,96 €.*

*Lagapen globalaren bidez eskualdatzen den sozietatearen ondare garbiaren balioa BOST MILIOI EHUN ETA LAUROGEITA HIRU MILA BOSTEHUN ETA BI EURO ETA BERROGEITA HAMALAU zentimokoa da (5.183.502,54 €). Ondare hori sozietate lagatzailearen aktibo eta pasibo guztiek osatzen dute, eta oso-osorik akziodun bakarrari eskualdatzen zaio, Tolosako Udalari, eta balio horren araberako ondare-elementuak esleituko zaizkio.*

*Sozietate lagatzailearen ondarea baloratzeko, oinarritzat hartu da 2020ko ekainaren 30eko sozietatearen ondare garbiaren ondoriozko kontabilitate-balio teorikoa.*

- ***<u>SOZIETATEAK EDO BAZKIDEEK JASO BEHARREKO KONTRAPRESTAZIOA</u>.***

*3/2009 Legearen 81.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Erretengibel sozietate lagatzailea iraungi egingo da aktiboaren eta pasiboaren lagapen globalaren ondorioz. Akziodun bakarrak, Tolosako Udalak, sozietate lagatzaileak eskualdatutako aktibo eta pasiboak jasoko ditu. Lagapenaren prezioak edo kontraprestazioak ez du zentzurik; izan ere, lagapen-hartzaileak sozietate lagatzailean titular diren akzioen jabe diren bazkideei konpentsatu beharko lieke ordainketa, baina toki-korporazioa bera denez akziodun bakarra, hau da, erakunde lagapen-hartzailea, bere buruari egindako ordainketa litzateke. Zorduna hartzekodunarekin nahasten denean, betebeharra azkendu egiten da.*

*Horregatik, ez da, ez egokia, ez garrantzitsua lagapen-hartzaileak lagatzailearen bazkideen alde egindako konpentsazio ekonomikoaz hitz egitea.*

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

- ***AKTIBOAREN ETA PASIBOAREN LAGAPEN GLOBALAREN BALANTZEA ETA BALDINTZAK EZARTZEKO SOZIETATE LAGATZAILEAK ERABILITAKO KONTUEN DATA.***

*Aktiboaren eta pasiboaren lagapen globalaren balantzetzat joko da sozietate lagatzaileak 2020ko ekainaren 30ean itxitakoa, balorazioetan egin beharreko aldaketak alde batera utzi gabe.*

*Jasota geratzen da aktiboaren eta pasiboaren lagapen globalaren balantzeak betetzen dituela Egitura Aldaketei buruzko Legearen 36.1 artikuluan eskatutako betekizunak.*

*Era berean, jasota geratzen da sozietate lagatzailearen aktiboaren eta pasiboaren lagapen globalaren balantzea ez dela egiaztatu, sozietatea ez dagoelako behartuta urteko kontuak egiaztatzera, Kapital Sozietateei buruzko Legearen 263.2 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direlako.*

***1. eranskin*** *gisa erantsi da sozietate lagatzailearen aktiboaren eta pasiboaren lagapen globalaren balantzea.*

- ***LAGAPEN GLOBALAK ENPLEGUAN IZAN DITZAKEEN ONDORIOAK.***

*Gaur egun, ERRETENGIBEL merkataritza-enpresak ez du langilerik plantillan. Beraz, ez da enpresaren ondorengotzarik gertatuko, Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 44. artikuluan xedatutakoaren arabera.*

*Proiektatutako aktiboaren eta pasiboaren lagapen globalak ez die eragingo Tolosako Udaleko langileen lan-harremanei. Hala ere, lagapen-hartzaileak langileei informazioa emateko betebeharrak beteko ditu, lan-arloko araudian xedatutakoaren arabera. Era berean, proiektatutako lagapen globala bidezkoa zaien erakunde publikoei jakinaraziko zaie, bereziki Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari.*

- ***ZERGA ARAUBIDE APLIKAGARRIA.***

*Nahiz eta atxiki zitekeen, aktibo eta pasiboen lagapen global hau ez zaio atxikiko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren VI. Tituluko VII. Kapituluan aurreikusitako araubide fiskalari (2/2014 Foru Araua). Bertan xedatzen da honako operazio hauek egiteko araubide berezia: bategiteak, zatiketak, aktiboen ekarpenak, baloreen trukeak, aktibo eta pasiboen lagapen globalak eta Europar Batasuneko estatu bateko sozietate europar baten edo kooperatiba sozietate europar baten egoitza soziala beste estatu batera aldatzea. "Aktiboaren eta pasiboaren lagapen globala" egiteko "arrazoi ekonomiko baliodunak" daude, aktiboaren eta pasiboaren lagapen globalaren proiektu honetan adierazi den bezala.*

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

*Nolanahi ere, Tolosako Udala sozietateen gaineko zergatik salbuetsita dago, 2/2014 Foru Arauaren 12.1.a) artikuluaren arabera. Horrek esan nahi du, neutraltasun fiskalaren araubidea aplikatzea erabaki arren, sozietatearen ondarea eskualdatzearen ondorioz agerian jarritako errentak ez liratekeela geroratuko, 2/2014 Foru Arauaren 102. artikuluaren 1. paragrafoaren azken-aurreko lerrokadan ezarritakoarekin bat etorriz.*

*Sozietateak zerga-oinarri negatiboak ditu aplikatzeke. Eragiketa 2/2014 Foru Arauaren VI. tituluko VII. kapituluan arautado zerga-araubide bereziari atxikitzea erabakiko balitz, sozietateak muga aplikatuko lioke 2/2014 Foru Arauaren 55.1 artikuluan arautado zerga-oinarri negatiboen konpentsazioari, eta etorkizunean gainerako zerga-oinarri negatiboak konpentsatzeko aukera galduko litzateke, lagapen-hartzailea zergatik salbuetsita baitago".*

Beraz, Udalaren Osoko Bilkurari dagokio proposatutako lagapena aztertzea eta, bere kasuan, onartzea, baita onarpen horren ondorioz toki-erakunde honentzat eratortzen diren neurriak hartzea ere.

## IV AKTIBOAREN ETA PASIBOAREN LAGAPEN GLOBALAREN ONESPENA

Arestian aipatu den moduan, 27/2013 Legeak, abenduaren 27koak, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoak, duen helburu nagusia defiziti aurre egitea da, eta horretarako, toki-erakundeen egituren sinplifikazioa bultzatzen du.

Hori ikusita, eta, batez ere, 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak onartzen dituenak, Bederatzigarren Xedapen Gehigarrian xedatzen dituen oztopoak, Tolosako Udalak Erretengibel, S.A.U. sozietate publikoa desegin egin behar du, udalerri honetako Alde Zaharrak behar duen arreta berezia ahaztu gabe. Horretarako, Udalak gai hauek aztertu eta ebatzi behar ditu:

1.Proposatutako lagapena onartzea.

2.Lagapenaren ondorioak udal ondasun eta eskubideetan.

3.Lagapenaren ondorioak enplegu publikoaren arloan.

4.Lagapenaren ondorioak sektore publikoko kontratazioaren arloan.

### 1. Lagapenaren onespena

Sozietateak onartutako proiektuan adierazten den moduan, *Udal sozietatearen ondarea Tolosako Udalean integratuta, kudeaketa sinplifikatzea eta egungo administrazio-karga murriztea lortuko litzateke, eta ondorioz, Erretengibel iraungi egingo litzateke.*

Halaber, sozietateak onarturiko Proiektuan honako arrazoi hauek jasotzen dira:

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

•***Egungo sozietate-egitura sinplifikatzea.*** *Lortu nahi den eragiketaren helburuak dira, besteak beste, kostuak aurreztea, bikoiztasunak ezabatuz eta sinergiak lortuz, jarduera arrazionalizatzea eta hirugarrenen aurrean kaudimena handitzea.*

• ***Tolosako udal sektore publikoaren lege-egitura arrazionalizatzea.*** *Erretengibelen jarduera Tolosako Udalean integratuta eta egungo sozietate-egitura sinplifikatuta, herritarrari begira lotuago agertuko da Udalaren irudi korporatiboa lortu nahi dituen interes orokorreko helburuekin.*

• ***Bi erakundeetako langileen arteko lan-baldintzak homogeneizatzea.*** *Sozietateak ez du langilerik; izan ere, 2019ko urtarrilean sozietateko bi langileak Tolosako Udaleko plantillan sartu dira. Sozietatea desegiteak lan-baldintzak homogeneizatzeko helburuari erantzuten dio, nahiz eta langileak desegin aurretik bereganatu diren.*

Udal idazkariaren iritziz, sozietatea desegiteko erabilitako formula – aktiboak eta pasiboak bere bazkide bakarrari lagatzea – guztiz justifikatuta dago espedientean dagoen AGEM aholkularitza-enpresak 2019ko azaroaren 14an egindako txostenean.

**2. Lagapenaren ondorioak udal ondasun eta eskubideetan.**

Erretengibel S.A.U.ren ondasun higiezinak sozietateak modu ezberdinetan eskuratutakoak dira. Zenbait ondasun higiezin Tolosako Udalak egindako ekarpenen bidez eskuratu zituen. Tolosako Udalak Erretengibel S.A.U.ri ekarpena egin aurretik, ondasun higiezin horiek (lurrak) udal ondasunen erroldan jabari pribatura atxikita zeuden. Beste ondare higiezin batzuk Erretengibel S.A.U.k erosketa edo truke bidez eskuratutakoak dira. Beraz, Erretengibel S.A.U.ren lagapenen eta hura desegitearen ondorioz, ondasun higiezin horien jabetza Udalera pasako da.

Aldi berean, Tolosako Udalak Erretengibel S.A.U.k duen alokatzaile egoera bere baitan hartuko du indarrean dauden alokairu kontratuetan, oinordetza unibertsalaren bidez.

Bestalde, Erretengibel S.A.U. arduratzen da Eusko Jaurlaritzak etxebizitzak birgaitzeko ematen dituen ondorengo laguntzak kudeatzeaz:

1. Saltokien instalaziorako dirulaguntzak.

2. Birgaitze jarduerei buruzko dirulaguntzak.

3. Etxebizitza eraikinetan igogailuak jartzeko dirulaguntzen arautegia.

Lagapenaren ondoren tramitean dauden dirulaguntza espedienteak Tolosako Udalak garatu eta ebatziko ditu, horretarako Ordenantza berria onartuz.

Tolosako Udalak eskuratuko dituen ondasun eta eskubideak, Udal Ondasunen Erroldan inskribatu behar dira, 1372/86 Errege Dekretuak, Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduak (TEOE), 17. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

Azkenik, Tolosako Udalak gauzatu behar du eskuratutako ondasun higiezinen eta eskubide errealen inskripzioa edo immatrikulazioa Jabetza Erregistroan, TEOEren 36.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Tolosako Udalak eskuratuko dituen ondasun eta eskubide guztiak aztertu eta sailkatu beharko ditu. Alde batetik, erabilera edo zerbitzu publikoarekin lotutako ondasunak jabari publikoari atxiki behar dizkio, 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 79 artikuluan, 781/86 Legegintzako Errege Dekretuaren 74. artikuluan eta 1372/86 Errege Dekretuak, Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduak (TEOE), 2. eta hurrengo artikuluetan xedaturiko araubidea aplikatuz. Bestaldetik, ondare-izaera duten ondasunak izaera juridiko horrekin sailkatuko ditu.

Jabari publikoko ondasunen araubideari dagokionez, arestian aipaturiko legerian xedatutakoaren arabera, herri-ondasunak eta jabari publikoko gainerako ondasunak besterenduezinak, enbargaezinak eta preskribaezinak dira, eta ez dute inolako zergarik ordaindu behar.

Tolosako Udalak eskuratuko dituen ondasun eta eskubideak, Udal Ondasunen Erroldan inskribatu behar dira, TEOEren 17. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Azkenik, Tolosako Udalak gauzatu behar du eskuratutako ondasun higiezinen eta eskubide errealen inskripzioa edo immatrikulazioa Jabetza Erregistroan, TEOEren 36.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**3. Lagapenaren ondorioak enplegu publikoaren arloan.**

Batzar Unibertsalak onartutako Proiektuan jasotzen denaren arabera, gaur egun Erretengibel S.A.U.-k ez du langilerik, beraz, ez da enpresaren ondorengotzarik gertatuko, Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 44. artikuluan xedatutakoaren arabera.

**4. Lagapenaren ondorioak sektore publikoko kontratazioaren arloan.**

Tolosako Udala Erretengibel enpresaren lekuan subrogatuko da, hark sinatuta dituen kontratu, hitzarmen eta gainerako negozio juridikoetan.

**5. Lagapenaren ondorioak sozietatearen betebeharretan.**

Arestian aipatu den moduan, Erretengibel sozietatearen jardueretako bat Tolosako Alde Zaharreko etxebizitzen eta negozioen titularrei hainbat motatako obrak egiteko dirulaguntzak ematea izan da. Une honetan, dirulaguntza horien izapideak egoera ezberdinetan egon daitezke:

- Sozietateko organoak onartutako dirulaguntzen kasuan, Tolosako Udalak haren ondorengotza hartuko du, eta bere gain hartuko ditu sozietateak onartutako betebeharrak.

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

- Sozietateak jaso dituen eta ebatzi ez dituen laguntzen kasuan, Tolosako Udalak bere gain hartuko du haiek izapidetzeko eta ebazteko betebeharra, eta kasu bakoitzean dagokion erabakia hartuko du. Horretarako, ezinbestekoa da dirulaguntza horiek arautzen dituen Ordenantza edota Ordenantzak izapidetzea eta onartzea. Proposatzen da Udalak izapidetu beharreko Dirulaguntzen Ordenantzan (edo Ordenantzetan) Xedapen Iragankor bat txertatzea, Erretengibelen aurkeztu diren eta ebatzi ez diren eskaerak Udalak izapidetu eta ebatzi ahal izan ditzan.

**5. Erabakiak hartzeko organo eskuduna**

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2.f) artikuluan xedatzen duenaren arabera, Udalbatzaren osoko bilkura da organo eskuduna lagapen hau onartzeko. Halaber, erabaki honek korporazioa osatzen duten kideen gehiengo absolutua behar du, aipatu Legearen 47.2.k) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Antolakuntza Batzorde Informatiboak irizpen proposamen hau aztertu eta bozkatu du 2020ko azaroaren 18an egindako bilkuran. Bozketa emaitza hau izan da:

**Aldeko botoak**: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitana Amondarain Eskisabel, Ander Figuerido Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria . Aho batez onartu dute

Horiek horrela, honako Irizpen hau aurkezten zaio eskumena duen udal organoari, Udalbatzaren Osoko Bilkurari, onar dezan

**IRIZPENA**

**LEHENA.-** Onartzea Erretengibel Tolosako Alde Zaharra birgaitzeko hirigintzazko SAren aktibo eta pasiboen lagapena, sozietatearen Batzar Unibertsalak onartutako Proiektuan eta idazkariaren txostenean jasotako terminoetan.

**BIGARRENA.-** Tolosako Udalaren subrogazioa onartzea sozietate horren eskubide eta betebeharretan.

**HIRUGARRENA.-** Jasotako ondasun eta eskubideak, bereziki ondasun higiezinak Tolosako Udalaren ondareari atxikitzea, bakoitzaren izaera juridikoa, publikoa edo ondarezkoa bereiziz.

**LAUGARRENA.-** Eskuratzen diren ondasun eta eskubideak Tolosako udal ondasunen erroldan inskribatzea.

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

**BOSGARRENA.-** Eskuratzen diren ondasun higiezinak eta eskubide errealak Tolosako Jabetza Erregistroan inskribatzea edo immatrikulatzea.

**SEIGARRENA.-** Erretengibel S.A.U. izapidetzen ari den dirulaguntzei dagokienez, honela jokatzea:

- Sozietateko organoak onartu dituen dirulaguntzen kasuan, Tolosako Udalak haren ondorengotza hartuko du, eta bere gain hartuko ditu sozietateak onartutako betebeharrak.

- Sozietateak jaso dituen eta ebatzi ez dituen laguntzen kasuan, Tolosako Udalak bere gain hartuko du haiek izapidetzeko eta ebazteko betebeharra, eta kasu bakoitzean dagokion erabakia hartuko du. Horretarako, ezinbestekoa da dirulaguntza horiek arautzen dituen Ordenantza edota Ordenantzak izapidetzea eta onartzea. Proposatzen da Udalak izapidetu beharreko Dirulaguntzen Ordenantzan (edo Ordenantzetan) Xedapen Iragankor bat txertatzea, Erretengibelen aurkeztu diren eta ebatzi ez diren eskaerak Udalak izapidetu eta ebatzi ahal izan ditzan.

**ZAZPIGARRENA.-** Alkateari ahalmenak ematea, hartutako ebazpenen eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoak diren izapideak egin eta dokumentuak sina ditzan.

**ZORTZIGARRENA.-** Erabakiaren berri ematea Autonomia Erkidegoari, Zerga Administrazioko Estatuko Agentziari, Estatistika Institutu Nazionalari, Sektore Publikoko Erakundeen Inbentaritzari, Gizarte Segurantzari, eta bidezko gainerako erakundeei, egoki iritzitako ekintzak egin ditzaten, espedientea bukatu ondoren.

**BEDERATZIGARRENA.-** Erabaki horiek argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko Iragarki Taulan, eta Udaleko Gardentasunaren Atarian.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Erretengibel SAUren aktibo eta pasiboen lagapena Tolosako Udalaren alde.

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

6. **<u>ONARTZEA EUSKAL HERRIA PLAZAKO HOTELA ETA JATETXE-KAFETEGIA USTIATZEKO OBRA ETA ZERBITZU EMAKIDAREN KONTRATUAREN OREKA EKONOMIKO-FINANTZARIOA BERREZARTZEKO PROPOSAMENA, COVID-19AREN PANDEMIAK SORTUTAKO EGOERAREN ONDORIOZ BIDEBIDE TOLOSA SL (B-75168336) ENPRESAK EGINDAKO ESKAERA DELA ETA.</u>**

**<u>Antolakuntza Batzordearen 2020ko azaroaren 18ko irizpena.</u>**

**I.- <u>IDENTIFIKAZIO DATUAK</u>**

| | |
|---|---|
| Xedea | Euskal Herria plazako1-B eraikinean hotel eta jatetxe-kafetegi zerbitzuak ustiatzeko emakida |
| Unitate sustatzailea | Hirigintza Saila |
| Espedientea: | B.10.13/2016/0005 tomo 14 |

**<u>II.- AURREKARIAK</u>**

**<u>Lehena.-</u>** Tolosako Udaleko Udalbatzak 2016ko uztailaren 27an egindako Osoko Bilkuran, besteak beste, Euskal Herria plazako 1-B eraikinean hotel eta jatetxe-kafetegi zerbitzuak esleitzeko emakidaren oinarri orokorrak onartu zituen. Haien arabera, kontratua 2 lotetan esleitu zen; lote 1: hotela, eta lote 2: jatetxea eta kafetegia.

**<u>Bigarrena.-</u>** Behin izapidetze guztia legearen arabera egin eta gero, bi loteak BIDEBIDE TOLOSA, S.L. (B-75168336) enpresari esleitu zitzaizkion, honako baldintza hauetan:

<u>1 LOTEA: hotela</u>
- formalizazioa: 2017ko urtarrilaren 18a
- epea: 30 urte.
- kanona: lehenengo hiru urteetan 2.250 euro gehi BEZa, laugarren urtean, 9.000 euro gehi BEZa, eta bosgarren urtetik aurrera aurreko urteko kanona gehi ehuneko bata.

<u>2 LOTEA: jatetxea eta kafetegia</u>
- formalizazioa: 2017ko apirilaren 25a
- epea: 30 urte
- kanona: urtean 34.000 euro gehi BEZa.

**<u>Hirugarrena.-</u>** Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zen, eten egin ziren terminoak eta sektore publikoko erakundeen prozedurak izapidetzeko epeak, eta aipatutako Errege Dekretuak edo, hala bazegokion, Errege-Dekretu horren luzapenak indarra galtzen zuen unean hasiko zen berriz epeen zenbaketa. Terminoak eta epeak etetea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean definitutako sektore publiko osoari aplikatuko zitzaion, eta horien artean dago toki-administrazioa.

**Laugarrena.-** COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko, 8/2020 Errege Lege Dekretuak, martxoaren 17koak, ezohiko premiazko neurriei buruzkoak, zenbait neurri ezarri zituen, kontratu publikoak eteteak enpleguan eta enpresa-bideragarritasunean izan zitzakeen ondorio negatiboak saihesteko. Xedapen horiek helburu zuten, batetik, ez zitezela kontratu publikoak suntsitu, eta, bestetik, administrazioek hartzen zituzten erabakiek ez zezatela egiturazko eragin negatiborik izan ekoizpen-sarearen zati horretan. Neurri horiek, oro har, SPKLren 208. artikuluaren berariazko aldaketa ekarri zuten, bai eta emakiden berroreka ekonomikoari buruzko doktrinaren aldaketa ere, baina horien aplikazio zehatza kontratu bakoitzerako zehazki aztertu behar da.

**Bosgarrena.-** Exekutatzen ari diren kontratuetarako, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-Dekretuak, 34. artikuluan, berariazko neurriak jasotzen zituen obra, zerbitzu, hornidura eta obra eta zerbitzuen emakiden administrazio-kontratu tipikoen exekuzio-epea eteteari eta luzatzeari buruz. Xedapen horiek, bereziki etendura-araubidea, aldatzeko ahalmena zuen Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako ministroak.

*Artículo 34. Medidas en materia de contratación pública para paliar las consecuencias del COVID-19.*

*1. Los contratos públicos de servicios y de suministros de prestación sucesiva, vigentes a la entrada en vigor de este real decreto-ley, celebrados por las entidades pertenecientes al Sector Público, en el sentido definido en el artículo 3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, cuya ejecución devenga imposible como consecuencia del COVID-19 o las medidas adoptadas por el Estado, las comunidades autónomas o la Administración local para combatirlo, quedarán suspendidos total o parcialmente desde que se produjera la situación de hecho que impide su prestación y hasta que dicha prestación pueda reanudarse. A estos efectos, se entenderá que la prestación puede reanudarse cuando, habiendo cesado las circunstancias o medidas que la vinieran impidiendo, el órgano de contratación notificara al contratista el fin de la suspensión.*

*Cuando con arreglo a lo dispuesto en el párrafo anterior, la ejecución de un contrato público quedará totalmente en suspenso, la entidad adjudicadora deberá abonar al contratista los daños y perjuicios efectivamente sufridos por éste durante el periodo de suspensión, previa solicitud y acreditación fehaciente de su realidad, efectividad y cuantía por el contratista. Los daños y perjuicios por los que el contratista podrá ser indemnizado serán únicamente los siguientes:*

*1.º Los gastos salariales que efectivamente hubiera abonado el contratista al personal que figurara adscrito con fecha 14 de marzo de 2020 a la ejecución ordinaria del contrato, durante el período de suspensión.*

*2.º Los gastos por mantenimiento de la garantía definitiva, relativos al período de*

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

*suspensión del contrato.*
*3.º Los gastos de alquileres o costes de mantenimiento de maquinaria, instalaciones y equipos relativos al periodo de suspensión del contrato, adscritos directamente a la ejecución del contrato, siempre que el contratista acredite que estos medios no pudieron ser empleados para otros fines distintos durante la suspensión del contrato.*
*4.º Los gastos correspondientes a las pólizas de seguro previstas en el pliego y vinculadas al objeto del contrato que hayan sido suscritas por el contratista y estén vigentes en el momento de la suspensión del contrato.*
*En caso de suspensión parcial, los daños y perjuicios a abonar serán los correspondientes conforme al presente apartado de este artículo a la parte del contrato suspendida.*
*La aplicación de lo dispuesto en este apartado solo procederá cuando el órgano de contratación, a instancia del contratista y en el plazo de cinco días naturales hubiera apreciado la imposibilidad de ejecución del contrato como consecuencia de la situación descrita en su primer párrafo. Con esta finalidad el contratista deberá dirigir su solicitud al órgano de contratación reflejando: las razones por las que la ejecución del contrato ha devenido imposible; el personal, las dependencias, los vehículos, la maquinaria, las instalaciones y los equipos adscritos a la ejecución del contrato en ese momento; y los motivos que imposibilitan el empleo por el contratista de los medios citados en otro contrato. Las circunstancias que se pongan de manifiesto en la solicitud podrán ser objeto de posterior comprobación. Transcurrido el plazo indicado sin notificarse la resolución expresa al contratista, esta deberá entenderse desestimatoria.*
*No obstante, en caso de que entre el personal que figurara adscrito al contrato a que se refiere el punto 1.º de este apartado se encuentre personal afectado por el permiso retribuido recuperable previsto en el Real Decreto Ley 10/2020, de 29 de marzo, el abono por la entidad adjudicadora de los correspondientes gastos salariales no tendrá el carácter de indemnización sino de abono a cuenta por la parte correspondiente a las horas que sean objeto de recuperación en los términos del artículo tres del mencionado Real Decreto Ley, a tener en cuenta en la liquidación final del contrato.*
*No resultará de aplicación a las suspensiones a que se refiere el presente artículo lo dispuesto en el apartado 2.a) del artículo 208 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre; ni tampoco lo dispuesto en el artículo 220 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.*
*d) Prezio osoa zehazten ez den zerbitzu-kontratuetan, berrogeita zortzi hilabeteko edo gutxiagoko iraupena badute, iraupen osoari dagokion balio zenbatetsi osoa. Iraupena berrogeita zortzi hilabetetik gorakoa bada, edo denbora-tarte jakin bati lotuta ez badago, hilabeteko balioa bider 48.*
*7. Obra bat gauzatzeak, zerbitzu batzuk kontratatzeak edo hornidura homogeneo batzuk lortzeak kontratuak lote bereizietan eta aldi berean esleitzea ekar dezakeenean, lote guztien balio zenbatetsi osoa hartu beharko da kontuan.*
*8. Esparru-akordioetarako eta eskuratzeko sistema dinamikoetarako, horiek iraun bitartean aurreikusitako kontratu guztien gehieneko balio zenbatetsia hartuko da kontuan, balio erantsiaren gaineko zerga sartu gabe».*

Beraz, horren arabera, **obraren emakida-kontratuaren balio zenbatetsiak bere baitan hartzen ditu, bai egin beharreko obren kostua, bai ustiapenari lotutako gainerako kostu zuzenak eta zeharkakoak ere.**

**a) Emakidaren balio zenbatetsia**
Hemen aipatu behar da, lizitazioa onartu eta legearen arabera zegozkion iragarkiak GAOn, BOEn eta DOUEn argitaratu zirenean, LKS enpresak egindako azterketa ekonomikoan jasotako zifrak jaso zirela balio zenbatetsia zehazteko, hala nola:
- Lote 1: 597.627,39 euro.
- Lote 2: 782.047,01 euro.

Beraz, horren arabera, emakida osoaren balio zenbatetsia kontratuaren iraupen osoan (30 urte) 1.379.674,40 eurokoa zen eta zenbateko horien arabera jarri zituen emakidadunak zegozkion bermeak.

Hala ere, azpimarratu behar da, akats bat egon zela kalkulu hori egiteko orduan, ostalaritza jardueraren (Lote 2) kasuan, BEZa sartu baitzen zenbateko horretan; beraz, zifra egokiak hauek izango lirateke:
- Lote 1: 597.627,39 euro.
- Lote 2: 646.319,84 euro.

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

Horren arabera, **<u>emakida osoaren balio zenbatetsia kontratuaren iraupen osoan (30 urte) 1.243.947,23 eurokoa da.</u>**

**<u>b) LKS enpresak egindako dokumentuko zerga aurreko emaitzak</u>**

Aipagarria da hemen, LKS enpresak egindako "Euskal Herria plazako 1bis. eraikinean ostalaritza eta alojamendu jardueraren esplotaziorako kostu ekonomikoa eta bideragarritasun plana" izeneko dokumentuan, emakidaren iraupen osorako zerga aurreko emaitzak aurreikusten zituela:

- ostalaritza jarduera: 2.738.884 euro.
- alojamendu jarduera: 1.461.126 euro.

Horren arabera, emakidaren iraupen osoan izan beharreko zerga aurreko emaitza 4.200.010 eurokoa litzateke.

**<u>6.- Ondorioztapena</u>**

| | hasierako epea | epe berria |
|---|---|---|
| Lote 1 | 2047/01/17 | 2047/04/17 |
| Lote 2 | 2047/04/24 | 2047/7/24 |

Beraz, aurrekoa kontuan hartuz, bideragarritasun plana izeneko dokumentuan jasotzen diren zerga aurreko emaitzak kontuan hartuta, emakidadunak 27.676,04 euroko galerak izan dituenez eta emakidaren zerga aurreko emaitza 4.200.010 eurokoa denez, galera hori zerga aurreko emaitzaren % 0,20 da. Horrenbestez, kontratuaren epea ehuneko berean luzatuko litzateke (% 0,20), hau da, hasierako 360 hilabeteak (30 urte), 362,4 (363) hilabete izatera pasako lirateke. Hortaz, kontratuaren bukaera 3 hilabete atzeratuko litzateke.

**IV.- <u>KONTRATAZIO-ORGANOA</u>**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontuan.

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora, hau xedatzen du lehenengo xedapen iragankorrean:

*Lehenengo xedapen iragankorra. Lege hau indarrean sartu aurretik hasitako espedienteak eta adjudikatutako kontratuak.*

*1. Lege hau indarrean sartu aurretik hasitako kontratazio-espedienteak aurreko araudiaren bidez arautuko dira. Horretarako, kontratazio-espedientea hasita dagoela ulertuko da, baldin eta kontratua adjudikatzeko prozeduraren deialdia ordurako argitaratuta badago. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuen kasuan, kontratuaren hasiera-unea zehazteko, baldintza-agiriak onartutako data hartuko da kontuan.*

*2. Lege hau indarrean sartu aurretik adjudikatutako administrazio-kontratuak aurreko*

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

*araudiaren bidez arautuko dira haien ondoreei, betetzeari eta azkentzeari dagokienez, haien aldaketa, iraupena eta luzapen-araubidea barnean direla.*

Horrela, kontratu hau esleitu zenean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua zegoen indarrean eta horren II. Xedapen Gehigarriaren I. atalean, hau esaten zuen:

*Bigarren xedapen gehigarria. Toki-erakundeetarako kontratazio-arau bereziak.*
*1. Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak,* ***baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa****; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.*
*Era berean, alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumena izango da toki-erakundeen ondasunen gaineko kontzesioak esleitzea, eta ondareari buruzko legearen mendeko ondasun higiezinak eta eskubideak eskuratzea, balioa ez denean aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa eta hiru milioi euro baino handiagoa; ondarea besterentzea ere beren eskumena izango da, balioa ez denean ehuneko edo zenbateko hori baino handiagoa.*
*2.* ***Aurreko paragrafoan aipatu ez diren kontratuei dagokienez, toki-erakundeak halakoren bat egin behar badu, osoko bilkurarena izango da horiek kontratatzeko eskumena****, kontratazio-organoa denez. Era berean, osoko bilkuraren eskumena izango da toki-erakundeen ondasunen gaineko kontzesioak esleitzea, eta ondareari buruzko legeriaren mendeko ondasun higiezinak eta eskubideak eskuratzea, edo ondarea besterentzea, baldin eta eskumen hori ez bazaio alkateari edo presidenteari esleitu; baita balio historiko edo artistikodun ondaretzat jotako ondarea besterentzea ere, edozein dela ere haien balioa.*

Hori guztia kontuan izanik, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren I. atalean emakidak aipatzen ez direnez, II. atalean xedatutakoa hartu beharko da kontuan; horrela, **osoko bilkuraren eskumena da, kontratazio organoa denez, dagokion ebazpena hartzea.**

Horiek horrela, eta osoko bilkuren egutegia kontuan hartuz, hilabete geratzen da hurrengo ohiko osoko bilkura egiteko eta horrek BIDEBIDE TOLOSA, S.L. (B-75168336) enpresari tentsioa ekar liezaioke diruzaintza-fluxuetan, aktibo-zirkulatzailean edota arazoak maniobra-funtsean. Horiek horrela, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1 artikuluaren k) idatz zatian xedatutakoaz baliatuz, alkate-lehendakariak onartu ahal izango luke enpresak eskatutakoa larrialdi-kasu baten aurrean egongo bagina, eta hurrengo osoko bilkuran eman beharko luke horren

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

berri, osoko bilkurak berretsi zezan, baina, kasu honetan, nahiz eta larrialdi-kasu batetik eratorri, ezin da hori aplikatu.

*21. artikulua. 1. Alkatea da udalbatzako buru eta eskumen hauek ditu:*
*k) Akzio judizialak eta administratiboak betetzea eta udalaren defentsa egitea bere eskumeneko gaietan, beste organo bati eskuordetzan emandakoak izan arren; larrialdi-kasuetan, osoko bilkuraren eskumeneko gaietan ere jardun lezake horrela, eta osoko bilkurak hurrengo lehenengo bilkura egiten duenean eman beharko dio alkateak horren berri osokoak berretsi dezan.*

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratua onartzen zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

**V.- ONDORIOZTAPENAK**

Aurreko guztia aintzat harturik, ondorioztatu daiteke 2020an BIDEBIDE TOLOSA, S.L. (B-75168336) enpresak 27.676,04 euroko galerak izan dituela lizitazioa oinarritu zuen azterketa ekonomikoan aurreikusitakoarekin alderatuta.

Halaber, lehenago aipatu bezala, 2019an, hirurehun mila euroko (300.000,00 €) itzuli beharrik gabeko dirulaguntza eman zitzaion enpresari 1. loteagatik (hotela), baita, eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko Zergari (ICIO) dagokionez, kontzeptu horregatik ordaindutako zenbatekoaren pareko dirulaguntza ere. Hori guztia lizitazioa arautu zuten pleguek horrela zehazten baitzuten.

Antolakuntza Batzorde Informatiboak irizpen proposamen hau aztertu eta bozkatu du 2020ko azaroaren 18an egindako bilkuran. Bozketa emaitza hau izan da:

**Aldeko botoak**: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitana Amondarain Eskisabel, Ander Figuerido Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria . Aho batez onartu dute.

Aurreko guztia aintzat hartuz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbataren Osoko Bilkurari:

**IRIZPENA**

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

**Lehena.-** BIDEBIDE TOLOSA, S.L. (B-75168336) enpresak egindako eskaera onartzea, eta Euskal Herria plazako hotela eta jatetxe-kafetegia ustiatzeko obra eta zerbitzu emakidaren kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzea, esango den terminoetan.

**Bigarrena.-** Udalak egoera berean hartutako erabakiaren irizpide berberari jarraituz, kontratuaren epea % 0,20 luzatzea, hau da, hasierako 360 hilabeteak (30 urte), 363 hilabete izatera pasatzea. Hortaz, kontratuaren bukaera 3 hilabete atzeratuko da. Izan ere, BIDEBIDE TOLOSA, S.L. (B-75168336) enpresak jasandako galerak 27.676,04 eurokoak dira eta emakidaren zerga aurretiko emaitza 4.200.010 eurokoa denez, galera hori zerga aurretiko emaitzaren % 0,20 da. Horrenbestez, kontratuaren epea ehuneko berean luzatuko litzateke (% 0,20), hau da, hasierako 360 hilabeteak (30 urte), 362,4 (363) hilabete izatera pasako lirateke. Hortaz, kontratuaren bukaera 3 hilabete atzeratuko litzateke.

| | hasierako epea | epe berria |
|---|---|---|
| Lote 1 | 2047/01/17 | 2047/04/17 |
| Lote 2 | 2047/04/24 | 2047/7/24 |

Bestalde, kontuan izan da 8/2020 Errege Lege Dekretuaren honako paragrafo hau ere: *«darán derecho al concesionario al restablecimiento del equilibrio económico del contrato mediante, según proceda en cada caso, la ampliación de su duración inicial hasta un máximo de un 15 por 100 o mediante la modificación de las cláusulas de contenido económico incluidas en el contrato».*

**Hirugarrena.-** Erabaki horiek Hirigintza Sailari, Ogasun eta Finantza Administrazio Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du BIDEBIDE TOLOSA, S.L. (B-75168336) enpresak egindako eskaera onartzea, eta Euskal Herria plazako hotela eta jatetxe-kafetegia ustiatzeko obra eta zerbitzu emakidaren kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzea.

## 7. ONARTZEA ABENDUKO OHIKO OSOKO BILKURAREN EGUNA.

Alkate-Lehendakariak honako proposamena luzatu die batzarkideei: ikusirik korporazioak legealdiaren hasieran onartutako egutegi instituzionalean abenduko udalbatza osoa

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

hilaren 17an egitea aurreikusten zela, baino, 2021eko aurrekontua onartzeko egindako egutegiaren araberan, bilkura egitea abenduaren 18an aurreikusten dela, ABENDUKO OHIKO PLENOKO DATA HILAREN 18AN IZATEA PROPOSATZEN DU.

Proposamena bozketan jarri ondoren, emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez onartu du egutegi instituzionala aldatzea, eta 2020ko abenduko ohiko plenoa ABENDUAREN 18AN, arratsaldeko 19:30ean, egitea.

## BERRI EMATEA

**8. KREDITU ALDAKETA HAUEN BERRI EMAN:**

- **2020/1748 ALKATETZA DEKRETUA, 12/2020 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEARI DAGOKIONA.**

Begoña Tolosa Mendia, Ogasuneko zinegotzi delegatuak azalpenak eman ditu.

2020/1748 Alkatetzak dekretuak honela dio:

***ALKATEAREN DEKRETUA***
*2020/1748*

*Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana*

*Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2020-KALD-000012-00 zenbakiduna,*

*Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.*

*Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikuluaren bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau*

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

## *EBATZI DUT*

***Lehenengoa*.-** *Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

### *KREDITU GEHIGARRIAK*

| Kapituluak | Izena | Gehikuntzak |
|---|---|---|
| 6 | INBERTSIO ERREALAK | 17.000,00 |
| KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA | | **17.000,00** |

### *FINANTZAKETA*

| Kapitulua k | Izena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 8 | FINANTZA AKTIBOAK | 17.000,00 |
| GUZTIRA | | **17.000,00** |

***Bigarrena*.-** *Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.*

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

- **2020/1873 ALKATETZA DEKRETUA, 13/2020 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEARI DAGOKIONA.**

Begoña Tolosa Mendia, Ogasuneko zinegotzi delegatuak azalpenak eman ditu.
2020/1873 Alkatetzak dekretuak honela dio:

***ALKATEAREN DEKRETUA***
*2020/1873*

*Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana*

*Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2020-KALD-000013-00 zenbakiduna (2020KBES0006).*

*Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.*

*Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikuluaren bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau*

***EBATZI DUT***

***Lehenengoa.-*** *Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

***KREDITU GEHIGARRIAK***

| ***Kapituluak*** | ***Izena*** | ***Gehikuntzak*** |
|---|---|---|
| *2* | *GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN* | *154.700,00* |
| *6* | *INBERTSIO ERREALAK* | *59.500,00* |
| ***KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA*** | | ***214.200,00*** |

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

*FINANTZAKETA*

| Kapitulu ak | Izena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 8 | FINANTZA AKTIBOAK | 214.200,00 |
| **GUZTIRA** | | **214.200,00** |

***Bigarrena*.-** *Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.*

*Tolosa, 2020ko azaroaren 19a*

*Alkatea* *Idazkaria*

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

**9. ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO URRIAREN 1ETIK 30ERA (2020/1542.-2020/1750).**

Alkatetzak 2020ko urriaren 1etik 30era (2020/1542-2020/1750) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

## MOZIOAK

**10. MOZIOA: AZAROAREN 25A, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

Mozioak honela dio:

*COVID-19aren pandemiak gure bizitza eta komunitateak kolokan jarri ditu, eta pertsona guztien osasunari, segurtasunari, ongizateari eta komunitate-bizitzari erronka handia jarri die. Aldatzen ari da mundua ulertzeko eta bertan egoteko dugun modua. Konfinamenduak, mugimendu-murrizketek eta harreman-mugek agerian utzi dituzte,*

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

*gordintasun osoz, indarkeria matxista mota guztiei aurre egiten ari diren emakumeen egoera oso ahulak; zaurgarriak are egoera zaurgarriagoan jarri ditu.*

*Krisi-testuinguru guztiak, pandemia honekin gertatzen den bezala, indarkeria matxista hazteko, biderkatzeko eta ugaritzeko haztegi bat dira. Indarkeria hori botere-harreman desorekatuen eta emakumeen aurkako diskriminazioaren adierazpen bat da, eta pairatzen ari garen krisi sanitario, sozial eta ekonomikoaren ondorioz larriagotu egiten da. Hala, egun bizi duguna zaintza-krisia ere badela bistan geratu da.*

*Pandemiak sortutako egoeran, arreta jarri behar dugu beren etxeetan, lanetan eta bizi-espazioetan bizirik irauteko indarkeriari aurre egiten ari diren emakumeengan eta neskengan. Gizartearen aitorpen eta elkartasun osoa merezi dute. Testuinguru horretan, lanean jarraitu behar dugu isolamendua, babesgabetasuna eta ikusezintasuna saihesteko baldintza egokiak sortzeko, herritik hasi eta lurralde osoraino, zaintza sareak sortuz eta indartuz, erreferentziazko izango diren Emakumeen Etxeak eraikiz eta ikuspegi feminista instituzioetan ez ezik, herritar ororen begiradan ere txertatuz.*

*Aurten Euskal Herrian hildako lau emakumeak gogoratu nahi ditugu bereziki gaur, bi, EAEn, eta beste bi, Iparraldean. Errealitate mingarri horrek gizarte gisa interpelatu egiten gaitu, lanean jarraitzeko eta mobilizatzeko konpromisoa hartzeko, horrelakoriik gerta ez dadin. Erailketa gisa ez ezik, indarkeria matxista beste hamaika modutara ere gorpuztu daiteke, eta batera nahiz bestera zapalduak eta estutuak diren horiei gure elkartasuna adierazi nahi diegu.*

*Hala ere, horrekin EZ DA NAHIKOA. Konpromiso politiko argia behar dugu, gizarteak erakundeei eskatzen baitie emakumeen aurkako indarkeria matxista lehentasun politiko bihur dezatela.  Eta argi daukagu, horrek gure lehentasuna izan behar duela eta dela. Inoiz ez bezala, zerbitzu publikoen eta erakundeen laguntza eta baliabide guztiak behar dira, emakumeei beren askapen-, berreskuratze-, ahalduntze- eta autonomia-prozesuetan laguntzeko. Hori ezinbestekoa da emakumeek berreskura dezaten oinarrizko eskubide hau: duintasunez eta segurtasunez bizitzea merezi duen bizitza bat izateko eskubidea. Baldintza da, gainera, gure herriak eta hiriak sendotu daitezen bizikidetza berdinzale, seguru eta solidarioko gune gisa.*

*Herritarrengandik hurbil gaudenez, gure Udaletik ahotsa jarri nahi diogu Tolosako udalerriak eta Tolosako emakume feministek emakumeekiko eta indarkeria matxistaren beste biktima batzuekiko duten elkartasunari. Gure erantzukizuna gure gain hartzen dugu, erakundeekin, kolektibo feminista eta emakumeen kolektiboekin, aditu eta gizarteko eragile guztiekin lankidetzan eta koordinatuta.*

*Horregatik guztiagatik, Tolosako Udaleko Osoko Bilkurak bere jarrera berretsi du, emakumeei indarkeria sexistarik gabe bizitzeko eskubidea bermatzeko, eta erantzukizuna hartzen du bakoitzak beretik eragiteko baina guztiok bat eginda erantzuteko egoera honi. Tolosako Udalak, beraz, konpromiso zehatz hauek hartzen ditu bere gain:*

- *Indarkeria sexistaren biktima diren emakumeen eskubideak zaintza prozesu guztiaren erdigunean kokatzea, haien beharrak eta eskaerak entzunez eta zainduz,  politika berriak diseinatzeko babeserako, arretarako eta erreparaziorako eskubidea bermatzeko eta ez ez direla errepikatuko bermatzeko. Era berean,*

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

*abian jartzea gaur egun bizi dugun alarma sanitario, ekonomiko eta sozialaren egoerara egokitutako jarduerak.*

- *COVID-19aren krisiak emakumeen pobretzean eta zaurgarritasunean duen eragina aztertzea, laguntzeko ekintza zehatzak diseinatzeko, eta, modu horretan, programak, baliabideak eta arreta zerbitzuak behar berri horietara egokitzeko eta/edo haiek hobetzeko. Horretarako, erakundeek bere artean lankidetzan eta koordinatuta jardun behar dute, bere eskumenen esparruan, eta Mugimendu Feministarekin eta Tolosako ehun sozialarekin harremanetan eta lankidetza estuan.*

- *Genero indarkeria eta sexu erasoak jasan dituzten emakumeen arreta hobetzeko erakunde arteko Ekintza eta Koordinaziorako Bigarren Tokiko Protokoloa prestatzea, bere ebaluazioan adierazitako gomendioak txertatuta. Eta egokia bada, erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko beharrezkoak diren baliabideak, zerbitzuak eta prozedurak sortu eta/edo egokitzea, eta arreta onena eta laguntza handiena eskaintzea indarkeria jasaten duten emakumeei eta haien familiei, ahalduntze feministaren eta erreparazio kolektiboaren eta indibidualaren ikuspegitik.*

- *Ikastetxeetako eskola-komunitate osoari zuzendutako hezkidetza-proiektua indartzen jarraitzea, eta nerabeak eta gazteak sentsibilizatzeko eta haiei prestakuntza emateko zereginarekin jarraitzea, egungo egoerara egokituta, indarkeria matxistaren formak desnatularizatzeko, eta arreta jarrita neskak ahalduntzeko eta mutilen maskulinitate-eredua zalantzan jartzeko, eta horrela, mota guztietako erasoak detektatzeko eta prebenitzeko eta harremanak sustatzeko. Eta, era berean, ikastaroak eskaintzea, hezkuntza sistema osatzen dutenei ez ezik, instituzioetako langileei eta politikoei ere bai, ikuspegi feminista politiketan txertatu dadin.*

- *Udalerriko bizitzan berdintasun programak zaindu eta finkatzea, desberdinkeriak areagotzearen aurka egiteko, izan ere, emakume talde batzuen ahultasun egoerak okerragotu egiten baitituzte; eta erantzunkidetasunak eta mendekotasunen bat dutenen zaintzak eragindako desberdinkerien aurka egiteko ere bai, zeregin horiek emakumeek egiten dituzte-eta gehien bat oraindik ere.*

- *Jabekuntza Eskolako tailer eta jardueren eskaintza handitzen eta hobetzen jarraitzea, ahalduntze prozesuak indibidualak eta kolektiboak indartzeko helburuarekin, trukerako espazioak eskainiz, nork bere burua babesteko eta indarkeria matxistaren salaketa publikoaren aldeko ekintza kolektiboak sustatzeko.*

- *Eta, jakina, Tolosako udalak Tolosaldeko Emakumeen Etxea proiektuaren garapena erraztuko du, indarkeria matxistaren eta, oro har, feminismoaren aurkako borrokan erreferentziazko leku segurua eta solidarioa izango dena.*

***Era berean,*** *tolosarrei* ***dei egiten diegu emakumeen aurkako indarkeriaren***

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

***aurkako eguna dela eta mugimendu feministak deitutako mobilizazioekin bat egin dezaten.***

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** *Azaroaren 25a, Emakumeenganako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna* izeneko mozioa.

**11. <u>EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA</u>.**

Mozioak honela dio:

***Euskara, aurrerabide. Gizartea euskaraz biziberritzea helburu***

*Inoiz inork pentsatuko ez zukeen eran jo gaitu gaitzak. Beste horrenbeste, gaitzaren ondorioek. Mundu osoa, gizarte guztiak, egitura guztiak, pertsona guztiok jarri gaitu geure benetako neurriaren aurrean, buruz buru. Kupidarik gabe utzi du agerian ahaztu nahi genukeen zerbait: zaurgarriak gara; zaurituta gaude.*

*Erantzukizunaren bidetik heldu diogu erronkari, denon indarrak batuz. Bai baitakigu ez dagoela beste irtenbiderik. Euskararen hiztun elkarteak ere sufritu du pandemiaren eragina, bereziki erabilera mailan. Zentzu horretan, erakunde publikoen konpromisoa sendoa eta egindako lana handia izanagatik ere, ezin izan diogu nahi bezala erantzun.*

*Euskaldunok, baina, ezin dugu ahaztu badela funtsezko ekarpen bat, gizarte-ahalegin itzel eta miresgarri horren osagai ezinbestekoa eta geure esku soilik dagoena: euskaraz egin behar diogu aurre mundu mailako krisiari; euskaraz egin behar dugu ilunpetik argira eramango gaituen bidea; euskaraz sendatuko gara, euskaraz sendatuko dugu geure gizartea; euskaraz besarkatuko ditugu mundu osoko gizakiak. Bat garelako. Euskaraz bat mundu osoarekin.*

*Horixe da euskaldunok –neurri batean edo bestean euskaraz bizi garen munduko herritarrok, alegia– euskara gero eta gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiliz giza garapenari egiten diogun ekarria. Gizarte kudeaketa aurreratuari gaineratzen diogun balio erantsia.*

*Banaka heltzen diogu, jakina, euskaraz gero eta gehiago bizitzeko konpromisoari. Nahitaezko zutabea baita norberaren eginahal hori edozein aurrerabidetan, oso bereziki gizarte prozesu konplexuetan, eta horixe da euskara biziberritzea helburu*

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

*duena ere: gizarte prozesu konplexu bat, ertz eta osagai ugari duena.*

*Ongi asko dakigu hori mundu osoko euskaldunok.*

*Badakigu, besteak beste, euskaldunok euskararen hiztun elkartea osatzen dugula, eta Euskaraldian norberaren erabakimenetik abiatzen dela euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzerakoan inguruan hainbatetan sortzen zaizkigun oztopoak gainditzeko bulkada.*

*Baina badakigu, era berean, ezinbestekoa dugula elkarrengana biltzen gaituen bulkada ere. Norabide biko bektorea baita euskara eta euskaldunok lotzen gaituena: euskarak herri egiten gaitu; euskal hiztunon komunitateak egiten du euskara orainaren eta etorkizunaren hizkuntza.*

*Bide horretatik heldu zaizkio beti euskarari aurrerapauso behinenak: norberaren eta gizartearen konpromisoak sendo uztartzetik; unean uneko beharrizanei euskaraz erantzuteko erabaki sendotik; etorkizunerako bidea euskaraz zolatzeko euskal instituzioek, gizarteak eta gutariko bakoitzak egindakotik.*

*Euskaraldiak eskaintzen digu aurten berriz ere zailtasunak aukera bilakatzeko abagunea, krisia aukera bihurtzeko lanabesa. Ingurumari aldrebesean dator, ezbairik gabe, aurtengoa, eta horrek areagotu egingo du guztion eta bakoitzaren konpromisoaren balioa, administrazio eta erakunde publikoena barne.*

*Aurtengoan, balio berezi batez apainduko da ahoa bizi, belarria prest eta bihotza kartsu dugun guztion ekimena. Aurtengoan, inoiz baino erabakigarriagoa izango da euskararekiko gertutasunezko keinu praktiko oro, euskal hiztunongandik zein euskararen zabalkundean erdaretatik lagundu nahi dutenengandik datorrela ere.*

*Esanahi berezi batez jantziko da aurten, ezinbestez, euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzeko ahalegina: egokitu zaigun ataka larritik ateratzeko erabakiari, euskaraz ateratzearen ezinbestekotasuna erantsiko diogu euskal hiztun nahiz euskararen lagun orok.*

*Izan ere, bagenekien euskaraz zetorrela geroa, euskaraz ere mintzo dela etorkizuna, eta aurten beste zerbait ikasi dugu: egoera zailetatik ateratzeko eginahalean lagungarri dugu euskara, bidelagun ezinbestekoa. Krisialditik sendoago ateratzea helburu dugun honetan, erabil dezagun euskara ere aurrera egiteko lanabes gisa.*

*Euskaraz biziberritu behar dugulako geure gizartea.*
*Euskararen ahotsa zor diogulako munduari.*
*Euskaraz garelako munduko herritar.*

***Euskara aurrerabidea delako.***

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, ***Euskara, aurrerabide. Gizartea euskaraz biziberritzea helburu*** izeneko mozioa.

**12.<u>TOLOSAKO PSE-EEEK AURKEZTEN DUEN MOZIOA MENDEBALDE SAHARAN BIZI DUTEN EGOERARI BURUZKOA.</u>**

PSE-EE udal taldeko ordezkariak adierazi du, Erregistrotik aurkeztutako mozioa erretiratu nahi duela, beraz, mozioa aztertu eta bozkatzeari uko egin diola.

**Ondoren, EAJ-PNV eta EH BILDU talde politikoak aurkeztu duten mozioa irakurri dute.**

**Mozioak honela dio:**

***“MOZIOA, MENDEBALDEKO SAHARAKO SU-ETENAREN AMAIERAREN AURREAN***

*1975eko azaroaren 14an, duela 45 urte, "Espainiaren, Marokoren eta Mauritaniaren artean Mendebaldeko Saharari buruzko printzipio-adierazpena" izeneko dokumentua sinatu zen Madrilen, "Madrilgo hiruko akordioak" izenez ezagutzen dena, eta Mendebaldeko Saharako herria behartutako lekualdatzera eta Marokoko Erresumak bere lurrak legez kanpo okupatzera kondenatu zuten.*

*Madrilgo akordioak ez zuen balio legalik, Saharako aldearen presentziarik gabe sinatu baitzen. Nazio Batuen Erakundeak ez du Madrilgo akordioak onartzen, izan ere, lurralde ez-autonomoen eta deskolonizatzeke dauden lurraldeen zerrendan sartzen du. Hagako Nazioarteko Justizia Gorteak saharar herriari autodeterminaziorako eskubide besterenezina ahalbidetzeko eta bere etorkizuna erabakitzeko hitza emateko beharra ezarri zuen.*

*Bestalde, Nazio Batuek MINURSOri agindu bat eman zioten, baina ez du bete, eta Marokoko Erresumaren alde egin zuen. Gainera, ez zuen eskumena eman giza eskubideen zaintzan, eta, beraz, ez zuen segurtasuna bermatu eremu horretan.*

*2020ko azaroaren 13an, Marokoko Indar Armatuek nahita urratu zuten 1991tik indarrean dagoen Marokoko Erresumaren eta Fronte Polisarioaren arteko Su Eten Akordioa.*

*Marokoko Erresumak Guerguerateko legez kanpoko pasabidera indar militarrak bidali zituen, duela lau astetik eremu horretan manifestazioak egiten ari ziren saharar herritarrak erreprimitzera.*

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

*Marokok 2001ean ireki zuen pasabide hori, Nazioarteko Zuzenbidea urratuz. Nazio Batuen Bake Akordioak (1988) eta Marokoren eta Fronte Polisarioaren arteko akordio militarrek Marokoko harresi militarrean pasabideak irekitzea debekatzen dute.*

*Indar marokoarren erasoaldiak eta Fronte Polisarioak saharar populazio zibilaren defentsan emandako erantzun legitimoak harresian zehar hainbat liskar eragin ditu. Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko Presidenteak, adierazpen baten bitartez amaitutzat eman du Fronte Polisarioak eta Marokoko Erresumak 1991n sinatutako su-eten konpromisoa.*

*Azken gertakarien aurrean Tolosako udalak, Sahara Euskadi Mugimenduarekin eta Euskadiko Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin batera:*

- *BERRESTEN DUGU zalantzarik gabeko elkartasuna diogula saharar herriaren eta haren legezko ordezkari Fronte Polisarioaren borrokari.*
- *Eusko Jaurlaritzari SEADen eta Fronte Polisarioaren aldeko jarrera publikoa har dezala eskatzen dio.*
- *Marokoko Erresumari EGOZTEN DIOGU 1991n Su-Etena apurtu izana, eta sortu den eta Magrebeko eskualde osora zabal daitekeen ezegonkortasunaren erantzunkizuna.*
- *MINURSOri eta Nazio Batuei eremuan segurtasuna eta sahararren giza eskubideen zaintza berma dezatela ESKATZEN DIEGU; eta, besterik gabe, autodeterminazio-erreferendumaren bidez, Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbide bidezkoa eta behin betikoa susta dezatela,.*
- *Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeari Mendebaldeko Saharan gertatzen den guztiarengatik dituen erantzukizunak bere gain har ditzala ESKATZEN DIOGU; izan ere, Lurralde Ez-autonomoa da, Marokok legez kanpo okupatua, NBEren agindupean, eta gatazkan dauden bi aldeak Genevako Hitzarmenaren sinatzaileak dira.*
- *Espainiako gobernuari Mendebaldeko Sahara “de iure” administratzen duen potentzia gisa duen erantzukizuna bere gain har dezala EXIJITZEN DIOGU; eta horren arabera joka dezala, autodeterminazio-erreferendumaren antolaketan eta Saharako biztanleria zibilaren babesean parte aktiboa izanik*
- ***Sahara Euskadi Mugimenduak Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin batera Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa babesteko deitzen dituen mobilizazioetan parte hartzera GONBIDATZEN ditugu euskal herritarrak.***

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez

ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313

Quinquilla .

**Abstentzio botoa:** Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **onartu** du *Mendebaldeko Saharako su-etenaren amaieraren aurrean* izeneko mozioa.

**13. GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Besterik gabe, 20:50ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanda.

ALKATEA
O.e.

IDAZKARIA



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU5dc56aab-e6b6-4ea0-a720-a90556153313**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Titulo:** | 2020IPLE0010-2020-11-26 AKTA/2020-11-26 Acta |
|---|---|

Data / Fecha: 2020/12/14 15:01:36
Sinatzailea 1 / Firmante 1: MARIA BEGOÑA GARMENDIA VAZQUEZ

Data / Fecha: 2020/12/14 18:17:03
Sinatzailea 2 / Firmante 2: 34108801P OLATZ PEON (R: P2007600F)